

hh
hik hasi

Emagineko Idoia Arrazari elkarrizketa
Ondarroako Hezkidetzeta Egitasmoa
Pedagogo sortzaileak:
Rudolf Steiner
Maskulinitate-ereduak eskolan
“Guztiok izan beharko genuke feminista”
Emakundeko Izaskun Landaida

612



ESKOLA FEMINISTA

Qekar ILUSTRAZIO 1. ETA IPUIN LEHIAKETA



Ilustrazio hau ekarriko da
eta ekarriko duen ilustrazioa
guztiak

ekar
Eusko Lehen Heziketa

LABORAL
Koop. enpresa



Agintariek



Herriak



Berruztopa

Elkarrekin



HAGA



AURKIBIDEA

GAIA / 10

ESKOLA FEMINISTARANTZ

Eskola gaur egun ez da parekidea. Mistoa bai, baina hezkidetzaillea ez. Beraz, ikastetxe bakoitzak hezkidetzat landu ezean, irakasle bakoitzak aldagai diskriminatzaileez hausnartu eta aldaketa eragin ezean, eskolak, sistema bezala, patriarkatua egonkortzeko tresna gisa funtzionatzen jarraituko du. Izan, irakasle guztiak baitira berdintasun-irakasleak.

ELKARRIZKETA / 18

IDOIA ARRAIZA

Bilgune Feministako kide eta Emagin dokumentazio-zentroko koordinatzailea da Arraiza. Institutuz institutu, autodefentsa feministako lantegiak ematen ditu ikasle nerabeentzat. Baina, benetan hezkidetzan hezteko, nerabeengan eragitea adabaki bat ezartzea dela dio; irakasleek eta komunitate osoak busti behar dutela dio: "Klik egin behar dute".

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoa.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Ainhoa Azpiroz, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Aritz Larreta, Josi Diarbide, Elisabet Puiggros, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines

Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Diseinua: GrafIk.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANtZA S.A.L Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2017-02-02).

Kopurua: 4.100 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Irakasle guztiok izan beharko genuke feminista

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Generoaren motxila husten

18 ELKARRIZKETA

Idoia Arraiza

"Neskak mendekotasunean eta mutilak pribilegioan hezi nahi ez badira, 'klik' egin behar du irakasleak"

26 ESPERIENTZIAK

Ondarroako Hezkidetzatza Egitasmoa

30 EKARPENAK

Pedagogo sortzaileak: Rudolf Steiner

34 GALDEIDAZU

IBON ARRIZABALAGA

Maskulinitate-ereduak eskolan

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

"Guztiok izan beharko genuke feminista"

42 ATZEKO ATETIK

Izaskun Landaida



IZEI eta HODEI

azterketak

bonizu
nuzuke



753
+134

windoll

DAKIZUEN BEZALA, GAUR
ERREPASO AZTERKETA DUGU...



....



ETA ESPERO DUT INOR
KOPIATZEN EZ HARRAPATZEA!



BAITA GUK ERE!



Irakasle guztiok izan beharko genuke feminista

editoriala

HEZKIDETZAN HEZI GINTEZKE,
HEZKIDETZAN HEZI GENITZAKE GURE
IKASTETXEETAKO HAURRAK. ERABAKI
KONTUA DA. LEHENTASUN KONTUA DA.
BAINA JUSTIZIA KONTUA ERE BADA.



Martxoak badakar zortzigarrena aurki. Eta gogoratuko dugu, oraindik ere, pobreziak emakume aurpegia duela, emakumezkoek lan baldintza, postu eskasagoak, soldata txikiagoak dituztela, eta gogoratuko dugu egunik egun gure herrietan emakume eta neskak bortxatuak direla, erailak izan direla, eta izango direla. Gogoratuko dugu emakumeak direla etxeko lanaz eta zama familiarraz arduratzen direnak. Beste urtebe- tez gogoratuko dugu. Orain, gure esparruan, eskolan, gure ikastetxean, gure gelan, gure hurrekin, zer egiten dugu diskriminazioa bukatzeko, neskei eta mutilei aukera berdinarik eskaintzeko, batzuei besteei baino gehiago ez exijitzeko, mutilei neskei baino arreta gehiago ez eskaintzeko? Guk geuk, geure postutik, zer egiten dugu gizarte parekideago baten mese- detan?

Betaurreko moreak jantzeko ueña da, oraino jantzi ez baditugu. Gainontzean neskei otzan, isileko izaten irakatsiko diegu, eta mutilei zabar, oldarkor. Horretarako sortua izan delako eskola, bere hastapenetatik. Eta gu ere, betau- rreko moreak jantzi ezean, horren konplize gara. Gu ere feminista izan ezean, hezkuntza sexistak erreproduzitzen ari gara.

Patioa da sistemaren sinbolo argia: mutilak erdigunean jolasean, eta neskek bazterretara behartuak. Hor historiako, filosofiako, mate- matikako, zientzietako edo etikako eskolan baino gehiago ikasten du haurrak, larrutik. Eta patioako sentimendua testuliburuek, afixek, materialek sendotuko diote gero.

Edo hezkidetzan hezi gintezke, hezi genitzake gure ikastetxeetako haurrak. Erabaki kon- tua da. Lehentasun kontua da. Baina justizia kontua da: zergatik hezi behar ditugu mutilak pribilegioetan, boterean? Zergatik hezi behar ditugu neskek mendeko?

Martxo honetako *hik hasi* berezia egin dugu. Ia osoki hezkidetzari eskaini diogu, merezi duelako. Merezi duelako irakasleok gure jardunaz hausnartzea, zer aldagai diskrimi- natzaile ditugun egunero eskuartean, horrek zer ondorio pertsonal eta akademiko dituen aztertzeak merezi duelako. Denok baikara izan berdintasun irakasle.

Eta aldizkari honekin batera, Chimamanda Ngozi Adichieren *Guztiok izan beharko ge- nuke feminista* liburua jasoko duzu, irakasle. Suedian 16 urteko ikasle guztiek jasotzen dute liburu hori etxean, bereziki neskek baina baita mutilak ere beste era batera hezteko euskarri bat izan dezaten. Eta *hik hasi*-k aukera berbera eman nahi die Euskal Herri osoko ikasleei, eskura dezatela feminismoa, jantzi ditzatela betaurreko moreak, diskrimi- nazioa antzematen ikasteko lehendabizi, eta, ondoren, gainditzeko tresnak eskura ditzaten. Guztiok izan beharko genukeelako feminista. Sinpleki azaltzen du zergatia Adichiek, sutilki egunerokoan bustitzen gaituzten tantak ikusa- razten ditu, baina baita ikusezin diren hariak ere, sustraietan daudenak eta goi hodeietan funtzionatzen dutenak. Irakasleok ere ikusi behar ditugunak, desberdinkeria-irakasle izan ez gaitzen.

“Seme-alaben eskola-orduetan presente egon daitezke gurasoak, eta lantzean behin, ikasleei mintegi bat eskaintzeko ardura dute”

Konfiantzaren pedagogia



IRAKASLEEN FORMAKUNTZA EGOKITU NAHI DU JAURLARITZAK, PISAREN EMAITZAK TARTEKO

Emaitza kaskarragoak izan dira azken PISA azterketan Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta horrei erantzuteko neurriak iragarri ditu Eusko Jaurlaritzak. Arreta berezia jarri du irakasleen prestakuntzan, irakasteko moduetan eta ikasleen ulermenean. Ikasleak kompetentzietan heztea ezinbestekoa dela ohartarazi du Hezkuntza Sailak, eta irakasleek gai izan behar dutela horretarako. “Paradigma aldaketa” horretarako prestakuntza iragarri dute, horrenbestez. Eta aldaketa handiago bat ere bai: unibertsitateekin hizketan hasi dira irakasle izateko ikasketetan sarbideko proba bat ezar dezaten.



Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak adierazitako eran, emaitzak hobetzeko beste lan ardatz bat ere ezarri dute: ulermena areagotzeko neurriak. Hezkuntza Sailaren esanetan, alor horretan lan egitea ez dagokie soilik hizkuntza-esparruko ikasgaiei, denei baizik. Hori oinarri hartuta, beste neurri bat iragarri du Uriartek: irakurketa-plan bat izan beharko du ikastetxe bakoitzak. Eskolako hezkuntza-proiektuan sartu beharko dute, eta eleaniztasun-planarekin ere lotuta egongo da. Irakurmen-arloan egoera soziolinguistikoa ere aintzat hartu behar dela esan du Uriartek: “Kontuan izan behar da euskal gizartearen elebitasun desorekatua, eta, beraz, hizkuntzen irakaskuntza era integrean planteatu beharra”.

NAFARROAKO GOBERNUAK ATZERATU EGIN DU BIGARREN HEZKUNTZAKO LAN ESKAINTZA

Lan eskaintza publikoa egina zuen Nafarroako Gobernuak: 247 lanpostu Bigarren Hezkuntzan jarduteko, 162 gaztelaniazkoak, eta 85 euskarazkoak. Baina atzeratu egin dute deialdia. Jose Luis Mendoza Hezkuntza kontseilariak adierazi du Espainiako Gobernuak bere aurrekontuei buruzkoak argitzen ez dituen bitartean, ezingo dela argitu zenbat langile berri hartu ahal izango dituen erretiroa hartzen dutenak ordezkatzeko, eta horregatik hartu dutela erabakia.

LAB, Steilas, ELA eta CCOO sindikatuek ontzat jo dute erabakia, uste baitute, hala astia egon daitekeela gai batzuetan ados jartzeko.

SINDIKATUEK GREBARA DEITU DUTE ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOAKO SARE PUBLIKOAN

Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak Eusko Legebiltzarrean PISA azterketaren emaitzen inguruan hitz egin ostean, ELA, LAB eta Steilas sindikatuek agerraldi bat egin zuten Donostian. Grebara joko dutela iragarri dute: martxoaren 22an egingo dute, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako hezkuntza publikoan. Nafarroan negoziatzen ari direla-eta, oraingoz ez dute herrialde horretan protestara deituko.

Sindikatuak salatu dute inbertsioak asko urritu direla hezkuntza publikoan. Kexatu dira “inposatutako” hezkuntza erreforma ezarri dela eta horrek “norabiderik eza” eragin duela.

Zenbait datu eman dituzte: sindikatuaren kalkuluen arabera, 2.000 langile gehiago behar dira Araba, Bizkai eta Gipuzkoako hezkuntza publikoan, eta 900 gehiago Nafarroan. Halaber, ohartarazi dute behin-behinean daudela langileen %40, eta azpimarratu portzentaje hori %6ra murriztu beharra dagoela.

CCOO eta UGT sindikatuek ere EAEko hezkuntza-sektorea greba egitera deitu dute martxoaren 9an, Heziberri, LOMCE eta murrizketen aurka protesta egiteko. Irakasleak hezkuntza sistemaren funtsezko zati direla nabarmendu dute, eta gaineratu dute Madrilgo zein EAEko Gobernuak negoziazioari ekiteko asmoa azaldu duten arren, hitz emandako hobekuntzak ez direla iritsi.

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria / Argia astekaria

EUSKARAZKO HEZKUNTZAK GORA EGIN DU NAFARROAN



2017-2018 ikasturteko aurrematrikulazioaren datuen arabera, euskarazko hezkuntzak gora egin du Nafarroan, bai administraziopeko eskoletan eta baita ikastoletan ere. Euskarazko hezkuntzaren igoera orokortua izan arren —%9tik gorakoa sare publikoan, eta %2koa Nafarroako ikastoletan—, eremuaren arabera da hazkuntzaren erritmoa: bizkorra eremu euskaldunean eta Iruñerrian; apalagoa, berriz, Erriberan. *Eremu ez euskalduna* deritzoten barrutian ere, era askotako errealitatea dago: Tafallan, esaterako, nabarmen egin du gora D ereduan izena eman duten 3 urteko haurren kopuruak, eta Estellerrian ere aukera sor liteke euskarazko eskaintza zabaltzeko. Nafarroa hegoaldean, ordea, oso familia gutxi egin dute D eredu publikoaren aldeko hautua, eta ikastolek iazko mailari eutsi diote.

IRUÑEKO SEI HAUR-ESKOLATARA ZABALDU DUTE MATRIKULA EUSKARAZ EGITEKO AUKERA

Nafarroako haur-eskola guztietan euskaraz ikasi ahal izateko urrats bat gehiago egin da. Aurrematrikulazio kanpaina martxoaren 1etik 15era egingo da, eta Alde Zaharreko, Sanduzelaiko, Donibaneko, Arrosadiko, Arrotxapeko eta Txantreako haur-eskoletan euskara hautatu ahal izango dute gurasoek. Iruñeko Euskalgintza erabakiarekin “pozik” agertu den arren, “kezka” azaldu du orandik ere “Nafarroako eta Iruñeko belaunaldi berri guztiei ez zaielako modu orokortuan ematen euskara ezagutzeko aukera. Gaur gaurkoz, ez da ziurtatzen herritar guztiek euskara jakitea, eta horrek desberdintasunak sortzen ditu herritarren artean”.

BARAKALDOKO LA MILAGROSA IKASTETXEKO KIDEAK BORROKAN, IKASTETXEA ITXI EZ DEZATEN

Une honetan 350 ikasle ditu Barakaldoko La Milagrosa itunpeko ikastetxeak, baina baliteke hurrengo ikasturtean bat bera ere ez izatea. Ikastetxeko komunitateak ezin dio aurre egin eraikinaren jabe den Miranda fundazioak ezarri dion alokairuari: urtebetean 100.000tik 250.000 eurora igo diete ordaindu beharrekoa, eta zenbateko horri aurre egiteko aukerarik ez izateaz gain, salatu dute fundazioak zahar etxe bat ireki nahi duela bertan. Negoziazioak irekita daude, baina oraingoz ez dute akordiorik lortu.

LUMA, ZIBURUKO EUSKARAZKO HAUR-ESKOLA ITXI DUTE

Eskualdean, euskarazko haur-eskola bakarra da Ziburuko Luma. 12 ume hartzen zituen, harik eta astelehen batez, bat-batean, gurasoek haur-eskola itxita aurkitu zuten arte. Luma Elkarteko Administrazio Kontseilua- ren erabakia “lekuz kanpokoa” eta “harrigarria” dela diote gurasoek: otsailaren 6tik haurrak nora eramanik ez dute eta euren artean antolatuta behar izan dira umeak zaintzeko. Laster, elkarte berri baten pean, haur-eskola berriz irekitzea espero dute.



20. KORRIKAREN UNITATE DIDAKTIKOAK PREST DIRA, IKASTOLEN ELKARTEAREKIN ELKARLANEAN SORTUTA

Ikastolen Elkartek eta Korrikak beste behin ere indarrak batu dituzte eta elkarlanean 20. Korrikaren unitate didaktikoak sortu dituzte Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergora arteko ikasleekin jorrazteko; alegia, 3 urtetik 18 urte bitarteko ikasleei zuzendua dago materiala. Xan Aire Ikastolen Elkarteko kideak koordinatu ditu unitate didaktikoak. Hala, martxoaren 30etik apirilaren 9ra egingo den 20. Korrikaren mezua zabalduko dute material horren bidez.

Ikas-materiala <http://www.korrika.eus/unitate-didaktikoa/ikastetxeetako-materiala> gunean dago eskuragarri.



IDAZKETA-PROZESUAREN NAHIZ PEDAGOGIA SISTEMIKOAREN INGURUKO IKASTARO BANA BIZILORE ESKOLAN

Azkoitiko Bizilore Eskola Aktiboak antolatuta, irakurketa- eta idazketa-prozesua nolakoa den azaltzeko ikastaroa emango du Elena Laiz Zizurkilgo San Millan eskola txikiko maistrak martxoaren 18an, Biziloren bertan. 9:30ean hasi eta 19:00etan amaituko da saioa, eta 40 € kostako da. Martxoaren 25ean eta 26an, berriz, Aitziber Esnaola eta Larritz Mendizabal irakasleek Pedagogia Sistemikoaren gainean hitz egingo dute. Larunbatez 9:00etatik 19:00etara egingo da saioa; eta igandez, 9:00etatik 13:00etara. 80 € kostako da. Batean zein bestean izena emateko 680 255 025 telefono zenbakira deitu behar da. Plazak mugatuak dira.

ARTEARI ETA KULTURA BISUALARI BURUZKO KONGRESUA EGINGO DA EKAINAREN 29TIK UZTAILAREN 1ERA

Euskal Herriko Unibertsitateak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak Donostiako Tabakalerako Bitartekaritza Sailarekin elkarlanean antolatuta, "Artea, ilustrazioa eta kultura bisuala Haur eta Lehen Hezkuntzan" izeneko nazioarteko kongresua egingo da ekainaren 29tik uztailaren 1era Donostiako Tabakalera, Imanol Agirre-ren zuzendaritzapean.

Hiru gai lerro nagusi izango ditu kongresuak. Batetik, artearen, ilustrazioaren eta haurtzararen arteko bitartekaritza politikak landuko dira: haurtzaroko kultura garaikideko arteetarako sarbidea izateko politikak, arte zentroek eta ilustrazioaren munduak haurren prestakuntza duten egitekoa, museo eta arte zentroetako hezkuntza sailen antolaketa eta programa gaiak, etab. Bigarrenik, bitartekaritza ereduak eta estrategia didaktikoak jorrazteko dira: ikuspegi pedagogikoak eta estrategia didaktikoak museo eta arte zentroetan, hezkuntza bitartekaritzaren ikusmoldeak, etab. Eta, hirugarrenik, arteekin, ikusizko kulturarekin eta haurrentzako argitalpen ilustratuekin gauzatutako hezkuntza bitartekaritza esperientziak eta praktikak ezagutu ahaliko dira.

Informazio gehiago eskuratzeko <http://congresoarteilustracion.org/eu/> gunera jo daiteke, edota info@congresoarteilustracion.org helbidera idatzi.

HIZPIDE IZANGO DA

0-3 ZIKLOKO HEZITZAILEEI BIDERATURIKO BI URTEKO FORMAZIOAN MATRIKULA EGITEKO EPEA LASTER IREKIKO DA

0-3 urte bitarteko hurrekin lanean aritzen diren hezitzaileei zuzenduriko bi urteko formazioa eskainiko du Hik Hasik, bosgarren aldiz. Formazioak hiru oinarri nagusi izango ditu:

1. Emmi Pikler. Juanjo Quintela psikologoak koordinatuko du.
2. Loris Malaguzzi. Alfredo Hoyuelos NUPeko irakasleak koordinatuko du.
3. Formazio pertsonala. Alvaro Beñaran psikomotrizistak koordinatuko du.

Ikaslerro bakoitzean, gaien adituak diren Euskal Herriko nahiz kanpoko hezitzaileek emango dute prestakuntza. Matrikulazioa egiteko epea martxoaren 13an irekiko da. Interesa duenak apirilaren 10 arte edukiko du izena emateko aukera www.hikhasi.eus webgunearen bidez.



JOLAS-TERAPIAREN EUSKAL HERRIKO TALDEA SORTU DUTE

Jolasa laguntza terapeutiko gisara erabiltzen duen diziplina da Jolas-Terapia. Haurren alderdi fisikoa, espirituala, afektiboa, emozionala eta kognitiboa kontuan hartuz eragiten du umearen alderdi kontzientean nahiz inkontzientean. Joaquín Blixekin lau urtez formatzen aritu ostean, Jolas-Terapiaren taldea sortu dute Euskal Herrian ere, heziketaren, pedagogiaren eta psikologiaren arloan diharduten zazpi profesionalek. Besteak beste, maiatzaren 26tik 28ra Santiago de Compostelan egingo den Jolas-Terapiaren nazioarteko kongresuan hartuko dute parte.

BIGARREN HEZKUNTZAKO TALDEAN BADA ORAINDIK TOKIA WALDORF ESKOLA BISITATZEKO

Trokonizen (Araba) dagoen Geroa eskolako proiektu pedagogikoa ezagutzeko egun osoko bisita antolatu du Hik Hasik martxoaren 25erako. Goizean, Waldorf-pedagogiaren inguruko azalpen orokorra egingo da. Arratsaldean, berriz, taldeka banatuta Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako nondik norakoen berri emango dute hezitzaileek. Haur Hezkuntzari eta Lehen Hezkuntzari dagokien taldeko plazak beteta badaude ere, Bigarren Hezkuntzakoan bada oraindik tokia. Izena emateko epea martxoaren 10ean amaitzen da, eta www.hikhasi.eus webgunearen bidez egin daiteke.

JARDUNALDIA EGINGO DUTE LANDA-EREMUKO ESKOLEK APIRILAREN 7-8AN

Nafarroako landa-eremuko eskolen errealitatea zer-nolakoa den aztertzeko jardunaldia egingo da apirilaren 7an eta 8an, Iruñeko Nafarroako Museoa. Hizlarien artean izango dira Ana Isabel Ayala, Roser Boix eta Mikel Goñi. Informazio gehiagorako 848 428 786 zenbakira dei daiteke.



Eskola gaur egun ez da parekidea. Mistoa bai, baina hezkidetzaileria ez. Sortu ere gizonezkoentzako pentsaturiko eskolaren gainean sortu zen eskola mistoa. Eta oraino, eskolak ez dizkie aukera berdinak ematen neskei eta mutilei, eta ez die berdin exijitzen. Batzuegandik oldarkortasuna eta zabarkeria espero du, otzantasuna eta perfekzionismoa besteengandik. Eta horrek ikasleen nortasunean, sozializazioan eta proiektio akademikoan eragiten du. Beren-beregi ikastetxe bakoitzak hezkidetzari landu ezean, irakasle bakoitzak aldagai diskriminatzaileez hausnartu eta aldaketa eragin ezean, eskolak, sistema bezala, patriarkatua egonkortzeko tresna gisa funtzionatzen jarraituko du. Izan, irakasle guztiak baitira berdintasun-irakasleak.

GAIA: ESKOLA FEMINISTARANTZ

Generoaren motxila husten

Eskola, gaur egun, matxista da. Instituzio gisa, eskola, hemen eta orain matxista da. Hitza gordinegi zaionak jarri beza ez-parekidea: eskola gaur egun ez da parekidea, edo eskolak gaur egun, oraindik desberdinkeria sustatzen du generoagatik. Ez bada, beren-beregi ikastetxe horrek hezkidetzaz bultzatu duela. Gainontzean, eskola gaur egun, patriarkatua egonkortzeko sistema bat da. Eta hau ez da balorazio bat, konstatazio historiko bat baizik: gaur egungo eskola (eskola mistoa) mutilentzat diseinaturiko eskola-egitura eta curriculumean oinarritzen da, neskenentzat diseinatu zen eskola-egitura eta curriculumera erabat baztertu baitziren gaur norma bilakatu den hezkuntza-sistema zabaltzeko garaian.

Eskola, gaur egun, matxista da. Arau-esparru zabal batek eskolan berdintasunezko gizarte baten alde lan egin dezala eskatzen badio ere hezkuntza-sistemari. Oraindik ere, ez dizkie aukera berdinak ematen neskei eta mutilei. Ez baitie berdin exijitzen neskei eta mutilei. Batzuetan esplizituki, besteetan sutilki. Neska izateak edo mutil izateak ikasle bizitza baldintzatu egiten du, ez bada, beren-beregi, ikastetxe horretan parekidetasunaren aldeko lana egin.

Zeinek eurenganutzen dute arreta gelan, neskek ala mutilek? Zeinek okupatzen dute jolaslekuko espazio zentrala? Nor jolasten da bazterretan? Nola, zer-nolako ahots doinuarekin, hitz egiten die irakasleak mutilei? Ete neskei? Nori exijitzen zaio arduratsua izatea? Letra ona edukitzea,

etxerako lanak beti eginda ekartzea? Norengandik espero ditugu nota hobeak? Zeinek pairatzen dute eskola-porrota? Zer-nolako balioak goستن ditu eskolak? Zer ikasketa hautatzen dituzte batzuek eta besteek? Testuliburuetan zenbat erreferentzia daude emakumeenak? Historia-liburuetan zenbat gizonezko eta zenbat emakumezko agertzen dira? Hormetako afixetan ze jarreratan agertzen dira andrazkoak eta gizonezkoak? Zein da ikastetxeko zuzendaria? Haur-eskolako irakasleak gizonezkoak ala emakumezkoak dira? Parekidetasun eza erakusten duten aldagai batzuk baino ez dira galdera hauen erantzunak.

Patriarkatuak —gizonek emakumeak menderatzeko duten botere-harremanen sistemak— hainbat baliabide ditu gizartearen egituratzeko —kapitalismoak dituen bezalaxe—. Eta eskola sistema arras eraginkorra da gizartearen bi kaxoitan egituratzeko: eskolak eragin itzela du nortasunaren eraikuntzan, neskei halakoak eta mutilei holakoak izan behar dutela irakasteko tresna da eskola patriarkatuarentzat. Mundua bitan banatzen du patriarkatuak, orori generoaren ikuspegitik begiratzen dio, eta dominazio-sistema bat antolatzen du, gizonezkoak goian eta emakumezkoak behean ezartzen dituena. Datuek erakusten dute posizio makurra: bidean aurrera egin bada ere, sexu-erasoak eta genero indarkeria pairatzen dute andrazkoek, emakumeen soldatak baxuagoak dira oro har, politikaren, ekonomiaren, kulturaren eta zientziaren alorretan erabakiak hartzeko esparruetan askoz

GAIA: ESKOLA FEMINISTARANTZ

Generoaren motxila husten

emakume gutxiago daude, etxeko lanen eta zaintza-lanen ardura eta lan banaketa desorekatua da, gizarteak goستن dituen balioak, eskuarki, maskulinoagoak dira... Beraz, tradizioz patriarkala den eskola-sistema erreproduzitzen dugun heinean nesken eta mutilen arteko diferentzia ereiten ari gara, batzuekiko eta besteekiko espektatiba eta aurreiritziak desberdinak diren neurrian haiei eskaintzen dizkiegun aukerak eta irteerak ere desberdinak izango baitira, ez badugu, beren-beregin binarismoa baztertzen eta munduari prisma anitzagotik begiratzen: pertsona bakoitza, ezarritako generoaren gainetik, bere gaitasun eta interesen arabera garatzeko aukera eskainiko duen eskola bultzatuz.

Diskurtso-mailan, ia-ia lortu dugu berdintasuna: “Legez, hitzez eta teorian berdintasunean bizi gara. Baina mezuak, errealitatea eta egunerokotasuna bestelakoa da: sexu-genero sistema baten arabera bizi gara. Gurea sedukzio patriarkatua da, eta agindu horren araberako mezuak jasotzen ditugu etengabe, gure nortasunean eragiteraino”, Amelia Barquinen hitzak dira, Huheziko irakasleak kulturantzatasunarekin batera berdintasun gaiak lantzen ditu Eskoriatzako Magisterio eskolan. “Gizartea ez da parekidea; familiak ez gara hezkidetzailak, hedabideek eta kultur produktuek zer-nolako mezuak ematen dizkiete neskei eta nolakoak mutilei? Jasotzen ditugun mezuen bidez, familian, lagun artean, komunikabideetan, kalean... etengabe ari gara gure nortasuna eraikitzen, eta pertsonak generoaren arabera sailkatzen ari

dira, etengabe”. Pilar Aristizabal Gasteizko Magisterio eskolako irakaslearentzat gero eta joera handiagoa dago mundua bi kaxoitari banatzeko: “Jaio aurretik ari gara baldintzatzen umeak, ekografiak neska edo mutila dela esaten digunetik igurikapen eta estereotipo batzuk ari gara eraikitzen haur horren inguruan. Neska bada gauza bat espero dugu, arropa batzuk erosiko dizkiogu eta gela era batera apainduko diogu; mutila bada, beste era batera. Gutaz espero denak eragina dauka gure nortasunean. Gero eta gehiago ari gara baldintzatzen, jaio aurretik ere”. Etengabe jasotzen ditugun mezu sexisten aurrean, Barquinentzat ikastetxearen funtzioa izan beharko litzateke “erreferenteak eskaintzea eta eredu alternatiboak ematea kultur industria nagusiak, hegemonikoak ematen dituenak alde batera utzita, beste batzuk ematea haur bakoitzak binarismotik harago, sedukzio patriarkatu honek neskei eta mutilei ematen dizkien mezuak baino osasuntsuagoak jaso ditzan”.

Pilar Aristizabalek ere argi dauka, eskolak pertsonaren nortasunean eta sozializazioan duen erantzukizuna handia da: “Eskolak garrantzia handia du generoaren eraikuntzan. Eskolan ordu asko pasatzen dira. Horregatik, luze hausnartu beharko genuke: zer-nolako neska- eta mutil-ereduak eramaten ditugu gelara? Zer-nolako familia-ereduak lantzen ditugu? Eredu asko aurkeztea garrantzitsua da, aniztasuna eskaini behar dugu, eta aniztasun hori errespetatzen ikasi. Curriculumaren eraikuntzatik beretik, bizitzen dena ikasten



GAIA: ESKOLA FEMINISTARANTZ

da. Hezkidetzaren balioetan hezi gintezke, edo kontrakoetan. Baina hezkidetzaren ez da plangintzan dugun gai bat bakarrik. Hezkuntza-proiektuan eduki dezakezu hezkidetzaren landuko duzun gaien artean, baina, gero, jarrerak, materialak... kontrakoak baldin badira, ipuinetan beti mutilak neska salbatuko badu, balio horietan ari gara ikasleak hezten. Curriculum osatzean, materiala aukeratzean, geure jarreretan, esku-hartzeetan... Parekidetasuna bultzatu nahi badugu, genero-irizpidea presente izan behar dugu beti eskolako erabakiak hartzean, uneoro betaurrekoak jantzita eduki behar ditugu”.

Barquinentzat eskola parekidetasuna lantzeko “leku pribilegiatua” da. “Baina ez da erraza, hori argi eduki behar dugu. Beraz, eskolari ematen zaion berdintasunerako enkar-gua bete nahi bada, baliabideak ere eman behar zaizkio. Eskolak aukera asko dauzka gai batzuk aurrera eramateko, eta horietako bat da hezkidetzaren baina eskolak bakarrik ezin du. Hori da daukagun erroka, eta horretaz kontziente izan behar dugu. Eskolaren erantzukizuna, hezkidetzaren gaietan, zentrala da, horregatik irakasleek kontzientzia eragin behar da: irakasle guztiak dira berdintasun irakasleak. Ezer ez baduzu egiten ere, zerbait egiten ari zara: patriarkatua erreproduzitzen ari zara. Irakasle bakoitzak dauka gai honekiko erantzukizuna. Orain, erroka betetzeko baliabideak behar ditu eskolak”.

Zergatik izan behar luke eskolak feminista?

Hasteko, helburu hori izan ezean, Barquinek dioen bezala, eskola ez-parekidea izango delako, gizartea den bezalaxe. Neska eta mutilak aukera berdintasunean hezteko, lehenik eta behin helburu hori zehaztu behar du eskolak, bestela, gizartean nagusi dena erreproduzitzen du eskolak: generoaren araberrako antolaketa eta botere-eredua, eta beraz, harreman ez-parekideak nesken eta mutilen artean; eta beraz, mutilak, oro har, oldarkeriara bultzatzea eta neskek isiltasunera kondenatzea. Zergatik izan behar luke eskolak feminista? Hona hemen Eusko Jaurlaritzaren *Hezkuntza-sisteman hezkidetzaren eta genero indarkeriaren prebentzioa sustatzeko Gida Plana*-k zehazten dituen hainbat arrazoi:

- Sexuaren araberrako estereotipoak eta rola ezabatzen lagunduko duten berdintasuneko harremanak sustatuko dituen eskola nahi dugulako eta sexu bateko zein besteko ikasleei beren buruak erabat garatzeko aukerak eskainiko zaizkiela bermatu nahi dugulako.

- Sexu harremanak eta harreman afektiboak osasuntsuak, errespetuzkoak eta askeak izan daitezzen nahi dugulako. Aniztasunean eta emakume eta gizonen aukera-berdintasunaren errespetuan eta sexu-identitateen eta -joeren errespetuan oinarritutako bizikidetzaren ereduak sustatuko

dituen eskola behar dugulako, gizarteko aurreiritziak eta inposizioak baztertuz. Espazio segurua eta orekatua izan behar duela LGTTBI ikasle guztientzat, sexu-joera, sexu-identitatea edota genero-identitatearengatik era guztietako bazterkeria, jazarpen edota erasoetatik babestuta sentituko diren espazioa.

- Genero-indarkeria eta sexismoa sorburu duten indarkeria mota guztien prebentzioan aktiboki lan egin nahi delako, eta emakumeen aurkako indarkeriazko kasuen detekzio goiztiarrean engeiatuko den eskola nahi dugulako.

- Emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenera egin dioten ekarpen sozial, zientifiko eta historikoa curriculumean txertatu nahi direlako.

- Gaurko genero estereotipoek mutilen artean eskola-porrotaren tasa igoarazten duela ikusirik, kasle guztiek hezkuntza-sisteman jarraituko dutela bultzatuko duen eskola nahi dugulako.

- Ikasleei beren harremanak berdintasunetik, errespetutik, alaitasunetik, askatasunetik... bizitzen lagunduko dien eskola delako osasuntsuena, jarrera bortitzak, matxistak, homofobikoak, lesbofobikoak eta transfobikoak gaudituz.

Eskolaren egitekoa da, pertsonak bere osotasunean hezten laguntzea, bada eskolaren egitekoa litzateke hezkidetzaren hezea ere, bi adituen iritziko. Hezkidetzaren helburua genero-desberdintasunak etengabe desagertzea da, eta ez eskolako egitura formalean bakarrik, baita hezkuntzaren ideologian eta jardun osoan ere. Honela deskribatzen du Jaurlaritzaren planak hezkuntza ikuspegi hau: “Gizonezkoen kulturaren eta emakumezkoen kulturaren alde positiboak berreskuratu nahi ditu, eta era dikotomikoan genero bakar bati lotuta ez dauden jokabide-erreferente bihurtu, neska eta mutilen giza garapena bultzatzeko, eta identitate pertsonala duten subjektuak direla onartzeko, estereotipoak alde batera utzita. Hezkuntza-planteamendu hori funtsezkoa da genero-indarkeriari heltzerakoan”.

Arazoa da eskolari egiteko asko ezartzen zaizkiola, euskararen hezea, kulturantzazunean hezea... eta baliabiderik ez zaiola ematen. *Lehentasan kontua da: eskola parekide baten alde lan egin ala ez, lehentasan kontua da; erabaki politikoa da*, adierazi du Pilar Aristizabalek. Gasteizko Irakasle eskolako irakasleak ‘Emakume eta gizonen berdintasuna irakasle formazioan: Gasteizko Irakasle Eskolaren kasua’ izenburua duen tesia egin zuen duela urte batzuk. Ikasleek eta irakasleek berdintasuna nola hautematen duten aztertu zuen tesian, eta, formazioa hobetzeko, hainbat proposamen jaso zituen. Historikoki eskolak pertsonak generoaren araberraren hezteko tresna izan direla erakutsi zuen bere tesiaren bidez: “Desberdintasun biologiko batzuetan oinarrituta, horrek aitzakia eman du egoera baztertzailerak sortzeko eta

GAIA: ESKOLA FEMINISTARANTZ

Generoaren motxila husten



emakumea etxean uzteko. Tradizio horretatik gatoz, eta nabarmena da hori. Hezkuntza-sistemaren hasiera-hasieratik, emakumeenganako diskriminazioa izan zen nagusi. Europa osoan XVIII. mendean ezarri zen eta XIX. mende osoa iraun zuen eredu etxetiarra izan zen. Zertarako prestatu behar zen emakumea? Zerbitzatzeko, umeak zaintzeko, etxea garbi edukitzeko... zientzia-ikasketak, matematika... hori dena ukatu egin zitzaion emakumeari. Hortik gatoz, beraz, gauzak aldatu nahi badira, lehen-lehenik kontzientzia hartu eta nahi izan behar da, erabaki kontua da hasteko, eta ondoren baliabide kontua”.

Nola eragiten du parekidetasun ezak ikaslearen nortasunean, sozializazioan eta proiektzio akademikoan?

Curriculum, materialak, testuliburuak, harreman-ereduak, espazioaren erabilera, eskolaren egitura, neskekiko eta mutilkekiko espektatibak, estereotipoak, exijentziak, rolak eta aukerak desberdinak baldin badira nesken eta mutilen kasuan, haiengan proiektatzen ari garena ere ez da parekidea izango, adituen arabera. Neska izaten eta mutil izaten irakatsi egiten da, eta, horretarako, esaten zaie zer balio, zer sentimendu, zer jarrera, zer jokabide, zer sexu-joera, zer sexu-identitate edota zer genero-identitate, zer gaitasun, zer rol... onartu behar dituzten sexu batekin edo bestearekin jaiotzeagatik, eta arau hori husten duenari zigorra ezartzen diote besteek, eta hori eskolan ere ikasten da.

“Neskak lotsatiagoak direla pentsatzen dugu, isilagoak direla aurreiritzen dugu. Mutilak, aldiz, zabarragoak izatea

espero dugu, zaratatsuagoak. Eta aurreiritziak, azkenean, bete egiten dira. Curriculum ezkutuaren bidez, neskengandik gauza batzuk eta mutilengandik beste batzuk espero ditugula adierazten diegu, eta horrek eragina dauka txikitatik nortasunaren eraikuntzan”. Batzuetan oharkabean egiten diren keinu txikiek ere garrantzia handia dutela nabarmendu du Barquinek: “Egunerokotasunean, konturatu ere egin gabe, eragiten ari gara, esate baterako, ohartzen al gara zein desberdin tratatzen ditugun neskak eta mutilak? Batzuei etengabe “ze polita zauden” esaten diegu, besteiei tonu ozengoa hitz egiten diegu. Horrek guztiak eragina dauka”.

Kontuan izateko beste gauza bat erreferenteen gaia da, bi irakasleek nabarmendu dutenez. “Umeek oso erreferente gutxi izan ohi dituzte markatutako bi bideetatik ateratzeko. Ikastetxe batzuetan ez dago ipuin bat bera ere non genero bereko bikote bat dagoen —adierazi du Huheziko irakasleak—. Posible da ikastetxe batean hamar urte pasatzea eta genero bereko bikote bat agertzen den ipuinik ez irakurtzea, ez marrazki bizidunetan ez afixetan ez beste inon agertzea. Nola irudikatuko du ume horrek genero bereko bikote bat? Ikusten ez dena zail da irudikatzen, eta zail da ikusten ez dena erreferentetzat hartzea”. Bortizkeria sinbolikoa deitzen dio horri Barquinek, “umeei irudikatzeo aukerarik ez eskaintzea bortizkeria sinboliko potentia da. Bide bakarra eskaintzea umeari aukerak erabat murriztea da”.

Generoaren ikuspegitik Queer teoriak egin duen ekarpena eskolan txertatzea proposatzen du Barquinek: “Queer teoriak ekarpen ederrak egiten dizkigu: adibidez ez dagoela beharrik pertsonak bi generotan sailkatzeko; Queer teoria

saiatzen da, besteak beste, binarismoa gainditzen, eta orduan konturatzen gara horri esker dena daukagula binarizatua, baina beste mundu bat posible da non ez den horren inportantea gizarteak dioen neska zarela ala mutila zarela, eta posible dela, zakila izan arren, orain arte neskek egin dituzten gauzak egitea. Kontua da momentu honetan hori ez dela posible, batez ere mutilentzat. Mutilek zailago daukate ‘nesken gauzak egitea’ prestigio galera bat baita haientzat, mutila bazara eta maitagarri jantzen bazara, zigor soziala jasoko duzu. Ez gara horren libreak”.

Indarkeria sinbolikoaz gain, mikroindarkeria —eta baita indarkeria eta bullying kasuetara arte ere— eragin dezake generoaren gaiak, Barquinen arabera, “eskola ez da leku babestu bat genero aniztasunari edo aniztasun afektibosexualari dagokionez. Umeek askotan generoa erabiltzen dute elkar markatzeko; mikrobertizkeriak umeen artean ere gertatzen dira, batzuek bigilatzen dituzte besteak bidetik ez ateratzeko, komentarioak egiten dizkiete...”

Umeei bi kaxoietatik haragoko mundu bat eskaintzeak, zabaltasuna emateak, esperimentatzeko aukera emateak, erreferente eta eredu antzak emateak mesede egingo lieke banakoei. “Ez dakit zenbateraino kontziente garen gure identitatearen eraikuntzan zer-nolako eragina daukaten eskolak eta eskola-komunitateak”. Barquinen arabera, eskolak aukera berdintasuna sustatu behar du binarismoaren aurretik, baina aniztasuna eta aniztasunaren errespetua ere sustatu behar du. “Dikurtso honek bi hanka ditu; berdintasuna batetik, eta aniztasuna eta errespetua bestetik, eta bigarren hankaz ez da ia hitz egiten. Berdintasuna eskubideei dagokienez, aukerei dagokienez, soldatak, lanpostuak... hori ezinbestekoa da, eta zure burua eraikitzeke daukazun askatasunaz zer? Hori da aniztasuna, eta aniztasunarekiko erroka handia daukagu oraindik ikastetxeetan”.

Aristizabalek eskola ez-parekide batek ikasleen nortasunean duen eraginaz gain proiektzio akademikoan duen eragina ere nabarmentzen du: “Eskolak ereduak eman ezean haurrek zail izango dute euren etorkizuna beste bide batzuetatik proiektatzea. Hasieratik gizarteak eta eskolak markatzen dizu zer izan zaitezkeen eta zer ez, ematen dituen edo ematen ez dituen ereduak, ez bakarrik nortasun eta jarrera kontuetan, baita lanbide-orientabidea eta proiektzio akademikoari begira ere”. Horren erakusle, ikasleen aukera pertsonal eta profesionalak lirateke, Batxilergoan nesken gehiengoak giza eta gizarte zientzietako adarrak aukeratzen dituzte eta mutil gehienek modalitate zientifiko-teknikoa hautatzen dute. Unibertsitate-mailako ikasketak aukeratzean generoaren araberrako diferentzia oraindik zein nabarmena den adierazten du Aristizabalek: “Oraindik ere zaintza-lanen inguruko karreretan — zentzu zabalean hartuta — neskek dira gehiengo handi bat, eta teknikoagoetan mutilak. Eskola-

ren egiturak, materialetan eskaintzen ditugun erreferenteak, badauka eragina ikasleengan sortzen ari garen iruditerian, erreferente eta ereduak. DBHn eta Batxilergoan zer bilatzen dituzte gazteek? Ereduak, eta dituzten ereduak arabera aukeratzen dute, badakite gizarteak zer onartzen duen eta zer ez. Guri eztabaida taldeetan argi esan digute gazteek: iturgin bat aipatzean, guztiei gizonezko bat etortzen zaie burura, eta ingeniariak eta politikariak aipatzean ere berdintsu, hori delako eskolan ere ikusi dutena. Txikienen ipuinetatik hasita, gaur egun oraindik umeekin ama agertzen da ia beti, emakumea ia beti etxe barruan agertzen da, edo zaintza eta irakasle lanetan... Emakumezkoak rol zientifikoetan agertzen direnean ere askotan zaintzari lotutako roletan agertzen dira. Estereotipo asko ditugu irudietan, eta horiek guztiek eragina dute nortasunean eta baita lanbide orientabidean ere”.

Nola bilaka liteke eskola bat feminista?

Urteak dira hezkidetzaz hitz egiten dela eskola-komunitateetan. Mugimendu feministaren ekimenez lehendabizi — Bilgune Feministak duela 15 urte egin zuen minimoen taula —, pedagogia berrikuntzako mugimenduen eskutik ondoren, eta instituzioen ekimenez hirugarrenik eskola mistoa eskola hezkidetzaille bihurtzeko betebeharra mahai gainean dago aspalditik. Eragile guztiak bat datoz aldaketa osoa izan dadin, eskola-komunitate guztiak hartu behar lukeela aldaketa-prozesuan parte: ikasleek, irakasleek, eskolako langileek eta familiarek, genero-ikuspegia ikastetxeko kultura eta praktiketan planteamendu integral baten bidez txertatzeko beharrezko direla diote.

1-“Irakasleek klik egin behar dute”

Barquinek eta Aristizabalek irakaslegaiak formatzen dihardute, eta euren egitekoa da ikasketak amaitu ostean ikasleak betaurreko moreak jantzita ateratzea. “Ez dago genero gaiei buruzko berariazko irakasgairik, graduak antolatuta zirenean aukera horri ateak itxi zitzaizkion, beraz, irakasle taldearen ekimenez txertatu dugu gradu osoan genero ikuspegia”. Bi irakasleentzat funtsezkoa da haurrekin dabiltzan maisu maistrak gaiarekiko sentsibilizatzea. Bai Aristizabalek eta bai Barquinek argi dute: “Irakasleek klik egin behar dute”. Aristizabalek tesia egin zuenean konstatatu zuen irakaslegaien artean hezkidetzarekiko sentsibilitate gutxi dagoela: “Berdintasunaren diskurtsoa zabaldua dago gizartean, eta baita irakaskuntzan ere; ematen du diskriminazioa jasotzen baduzu arazoa zurea dela, problema pertsonala dela. Azalako geruzaren azpian begiratu behar dugu: eta horretarako irakasleek tresnak behar dituzte, eta lehenengo kontzientziazioa da”.

Bi irakasleek berdintasun konpetentziak sistematizatzeke

GAIA: ESKOLA FEMINISTARANTZ

Generoaren motxila husten



beharra ikusten dute. “Gai hau, tamalez, irakasleen esku gelditzen da, boluntarismoaren arabera da: irakasle batzuek interesa baldin badute, ekiten dute; baina ez dutenek, ez; eta ezin du horrela izan egiturazko egin behar da”, azaldu du Barquinek. Haur Hezkuntzatik Batxilergora arte, transbertsalki landu behar da, Huheziko irakaslearen aburuz, berdintasun konpetentzia haurrekin. Lerro transbertsalaz gain, puntualki ere, materia gisa landu behar litzateke noiz-bait ikasle bizitzan, gaian sakondu umeez eskura ditzaten gizartea analizatzeko tresnak. “LHko hirugarren zikloan eta DBHko bigarren zikloan materia bat ematea oso pertinetza izango litzateke. Feminismoak garatu dituen tresna konzeptualak eskura izan behar dituzte ikasleek, haien errealitatea irakurri ahal izateko, pelikula hori ikusteko, bideoak hori ikusi ahal izateko, abesti hori entzuteko... Horretarako irakasleak entrenatu egin behar dira.”

2-Ikastetxe bakoitzak batzorde bat behar luke eta denbora eta baliabideak

Aristizabalek ere egiturazko bilakatzea ezinbesteko ikusten du, “bestela, ikastetxe batek gaia lantzen du eta ondokoak ez; irakasle batzuek gaia lantzen dute, eta haiek joandakoan programa bertan behera gelditzen da... lehenetsia eman behar zaio gai honi, akaso ez ote da funtsezkoa gure ikastetxeko ikasleen artean harreman osasuntsuak sustatzea? Sexu-erakoak eta genero indarkeria prebenitzea? Zaintzaren garrantziaz kontzientzia hartzea? Hori ez al da kalitate?” IKTekin egin dena jartzen du adibide gisa Gasteizko Magisterio eskolako irakasleak. “Gauza asko egin daitezke benetan lehenetsia ematen bazaio, esate baterako, IKTekin

egin den bezala: Heldutasun teknologikoaren arabera mailak sortu dira eskoletan, bada horrelako zerbait egin behar da hezkidetzarekin, irakasleek gutxieneko prestakuntza eduki behar dute mailarik maila; hezkidetzaren ardura eta dinamizatzailea izendatu behar dira”. Ikastetxe bakoitzean batzorde bat sortzea proposatzen du Aristizabalek, dinamizatzaileak denbora eta materiala eskura izango dituelarik, gainontzeko irakasleak hezkidetzan, sexu eta afektibitate-aniztasunean eta genero indarkeriaren prebentzioan sentsibilizatzeko ardura izango luke batzordeak. Eta hortik aparte, sareko lanari berebiziko garrantzia ematen dio Aristizabalek, batetik ikastetxe bereko irakasleen artean taldea sortzeari eta bestetik ikastetxeen artean sareak josteari, lana eta denbora probesteko, “etengabe zerotik hasi gabe”.

3-Administrazioaren inplikazioa ezinbestekoa da

“Baina ikastetxeetako batzorde horiek baliabidez eta denboraz hornitu behar dira, hori da benetan lehenetsia ematea”. Instituzioen babesa eta presioa gai honetan ere ezinbesteko ikusten du Aristizabalek, “gizartearen eskakizuna entzun behar da, lehenetsia eman behar zaio, eta lehenetsia ematea denbora, materialak eta espazioak ematea da”. Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailak idatzia eta garatua daukan proiektu mardularen helburua transformazio-prozesua sustatzea da, “eskola mistoko eredutik hezkidetzan oinarritutako eskolaren eredura aurrera egiteko, genero-indarkeriari aurrea hartzen eta, azken buruan, sexismoak eragiten duen edozein indarkeriari aurre egiten laguntzeko”. Oraingoz proiektu pilotua izan da.

Aristizabalek ikusten duen beste premia bat gaiaren inguruan egin diren ikerketa eta materialak biltzea eta Administrazioak argi eta eskura ezartzea da. “Irakasle askok lan handiak egin dituzte, eta material horiek baliatu egin behar dira, denon eskura izan, irakasleen lana erraztu egin behar da”.

4-Eskola-komunitate osoa inplikatu

“Irakasleekin batera familiarekin hausnarketa-guneak ireki behar dira, ahal dela familiak ere gune hezkidetzailleak bihurtzeko”, Barquinen hitzetan. Eta eraldaketa benetakoa izan dadin, noski, ikasleekin egin behar da lan. Egokiena, Aristizabal eta Barquinen irudiko txiki-txikitatik berdintasun konpetentzietan hezteko litzateke, aukera eta eredu aniztasunean, txikitatik betaurreko moreak jantzita, “ikasleak eurak izan behar dira gai inguratzen gaituen mundua analizatzeko tresna feministen bidez”. Funtsean eskola hezkidetzaillearen helburua beteko balitz ikasle bizitza, bizitza akademikoa eta lanbide-orientabidea askatasunean eta aukera aniztasuna errespetatuz hautatu eta garatzeko konpetentziak erdietsiko litzukete ikasleek, genero-baldintzapez gabe.

Zertan antzematen da parekidetasun eza?

Tantaka-tantaka, aldagai askok eragiten dute generoagatik diskriminazioa. Hona hemen Pilar Aristizabalek eta Amelia Barquinek identifikatu dituzten aldagai batzuk, Jaurlaritzaren txostenak ere aipatzen dituenak:

•Curriculumak:

Curriculumak, ikasten denak, eragin zuzena dauka neska-mutikoen nortasunean eta genero-sozializazioan; hau da, gure gizartean gizon izatea eta emakume izatea zer den adierazten die curriculumak, zein den gizarteak esleitutako espazioa (publikoa, pribatua), rolak, sexu bakoitzari zer jokabide eskatzen zaion eta zein jokabide diren “desegokiak”. Aristizabalek proposatzen du irakasle bakoitzak bere buruari galdetzea, zer irakasten den eta zer ez? Zergatik irakasten da gauza bat eta bestea ez? “Gaur egun daukagun curriculumak gizonezkoentzako diseinatu zen curriculumaren gainean eraiki da. Neskek irabazi egin zuten zientzia eta matematika eta beste hainbat irakasgai egiteko aukera izan zuten; baina galdu ere egin zuten, esparru pribatuari zegozkion eduki guztiak galdu egin ziren”. Gainera, gizarteak maskulinitzat jotzen dituen balioak eskolan modu inplizituan ematen dira eta gizarteak femininitzat jotzen dituen balioen gainetik hierarkizatzen dira. Adibidez: soldatapean etxetik kanpo egiten den lana, pribatua den ordain gabeko etxeko lanaren eta zainketa-lanaren gainetik ezartzen du eskolak; ekoizpena osasunaren eta ongizatearen gainetik; arrazionaltasuna hunkiberatasunaren gainetik; lehiakortasuna lankidetzaren gainetik; lehiaketa-kirolak jolasen gainetik; bizkortasuna malgutasunaren gainetik; hitza isiltasunaren gainetik...

•Testu-liburuak:

“Ikasliburuak eta materialak, oro har, gizarte-errealitatea, antolamendu-formak, balioak, emozioak adierazteko moduak, arauak, gizarte-, familia- eta harreman-ereduak deskribatzerakoan genero-estereotipoetan oinarritzen dira eta ez dute egungo gizarte-errealitate osoa adierazten”, Jaurlaritzaren txostenaren arabera. Berez, argitaletxeak bazterkeria guztiaren aurka dauden lege-eskakizunetara egokitu dira, baina Aristizabalek ikusi ahal izan duen eran, zoliagoa izan arren, diskriminazioak jarraitzen du testuliburu eta materialetan. “Espizituki, irudien bidez edo testuen bidez, diskriminazioa nabarmena da: txikien ipuinetatik hasita, emakumezkoak ama gisa edo umeekin agertzen dira ia beti; etxe barruan; gizonezkoak, berriz, sekula ez aita gisa”.

•Ebaluazioa:

Ebaluazio-metodoen neutraltasuna ezbaian jartzen du Jaurlaritzaren txostenak, “ikerketek egiaztatu dute generoen araberrako joera izaten dutela ebaluazio-metodoek, ikasleek banaka lortu beharreko errendimendu-helburuak nabarmendu baitira”. Joera horretan, gainera, nazioarteko azterketa

batzuek ere eragina izan dute, hala nola PISAk. Ebaluazioan erabilitako probek eta testuek kritikak jaso dituzte: egoera eta pertsonaia maskulinoak dira nagusi, emakumezkoak arinkeriaz tratatzen dira, eta hizkuntza eta irudi sexistak ageri dira. Horrez gain, ikerketan oinarriturik, txostenak dio neska/emakumei kalifikazio baxuagoak emateko joera dagoela, eta altuagoak mutil/gizonei, kalifikatu beharreko pertsonaren sexua jakiten denean. Hori dela eta, herrialde batzuetan ikasleen anonimotasuna ezarri da.

•Curriculum ezkutua - erreferenteak:

Gelan sartuta, nork bere gelan hausnarketa egin beharko luke erabiltzen dituen materialetan zenbat pertsonaia femenino dauden; eta zenbat maskulino? Zer ezaugarri dituzte? Zer roletan agertzen dira neskek eta mutilak? Egokiak al dira rol horiek, ala beste ipuin batzuk daude rol egokiagoak lantzen dituztenak? Eskolan dagoen paisaia, bai irudizkoa bai hitzezkoa, nolako da? Zer poster ditugu? Zergatik ditugu poster horiek?

•Harremantzeko moduak:

Jaurlaritzaren txostenak dio irakasleak ez direla ondo konturatzeko nola erabiltzen duten generoa, antolatze eta kategorietan sailkatze faktore gisa. “Irakasleek uste dute berdin tratatzen dituztela neskek eta mutilak, baina praktikan eta modu inkontzientean, pasibotasuna eta konformismoa sustatzen dute neskengan, eta independentzia eta banakotasuna mutilengan. Halaber, toleranteagoak dira mutilen portaera txarreakin, naturala dela uste baita, eta arrazoi beragatik, espero dute neskek ‘etxean egiten diren lanak’ egitea, hala nola, ikaskideei laguntzea edo ikasgela garbitzea”.

•Espazioaren erabilera:

Nork hartzen du patioaren erdigunea? Zer sinbolizatzen du horrek? Nor behartzen da patioaren bazterrean? Zer ondorio dakar horrek? Ikastetxe askotan jolastokian eta jolasteko eremuetan espazioaren banaketa sexista da oraindik ere, Jaurlaritzaren txostenak dioen eran, “jolasen hierarkiagatik, nesken eta mutilen jokabideengatik edo jolastokiaren espazioa antolatu gabe egoteagatik, mutilak erdialdean kokatzen dira eta neskek bazterretan”.

•Eskolaren egitura:

Zenbat irakasle daude ikastetxean? Zenbat emakumezko eta zenbat gizonezko? Zenbat ziklo bakoitzean? Eskola bakoitzean zer-nolako banaketa dago? Zergatik? Nor dira garbitzaileak, sukaldean lan egiten dutenak, jantokiko begiraleak, gizonak ala emakumezkoak? Normalki, argazkia ateratzen baduzu, ikastetxe gehienetan antzekoa izango da, eta horrek zer pentsatua eman beharko liguke, Aristizabalen irudiko: “Horrek ere badauka eragina ikasleengan transmititzen ari garen iruditeria, erreferente eta ereduetan. Izan ere, dituzten ereduaren arabera aukeratzen dute, badakite gizarteak zer onartzen duen eta zer ez”.



“Neskak mendekotasun-egoeran eta mutilak pribilegio artean hezi nahi ez badira, ‘klik’ egin behar du irakasleak”

ELKARRIZKETA:

IDOIA

ARRAIZA

EMAGIN-EKO KOORDINATZAILEA

Bilgune Feministako kide da Idoia Arraiza. Bilguneak 15 urte daramatza hezkidetzaren inguruan lan egiten, 2003an Gutxienekoen Taula osatu zuten hezkuntza-eragile ugariarekin hezkidetzaren bidean konpromiso batzuk hartzeko, eta, hurrengo urtean, eskola askotan oso erabilia den Hezkidetzeta Gida lan-tresna praktikoa sortu zuten. Duela bost bat urte, Hezkidetzeta Lau Haizetara egitasmoa prestatu zuten, hezkuntza-

eragileei prestakuntza, aholkularitza eta elkarlan feminista proposatzen dien plan integrala. Institutuz institutu, autodefentsa feministako lantegiak ematen ditu ikasle nerabeentzat, Emagin dokumentazio-zentroaren bidez. Baina, benetan hezkidetzan hezteko, nerabeengan eragitea adabaki bat ezartzea dela dio; irakasleek eta komunitate osoak busti behar dutela dio: “klik egin behar dute”.

Zer premia dute neska nerabeek eskolaren testuinguruan autodefentsa-lantegiak jasotzeko? Zer premiari erantzuten diote Emaginetik eskaintzen dituzuen lantegiek?

Adin guztietako emakumeok dugun beharra da autodefentsa feministarena; indarkeria gero eta ikusgarriago egiten ari den neurrian, gero eta gehiago azaleratzen ari den premia bat da. Autodefentsa, feminismoa bera bezala, zilegitasuna lortzen ari da, emakumeak beren buruari baimena ematen ari baitira horrelako gauzak egiteko.

Aurreneko premia neskontzat eurentzat bakarrik izango den espazio bat sortu beharra da, nahiz eta oraindik kritikak jasotzen ditugun, eta, batzuetan, institutueta zailtasunak izaten ditugu neskek eta mutilak bereizteko. Emakumeentzat diren espazioak sortzen ditugunean, gauza asko gertatzen dira. Inoiz atera ez diren gaiak eta bizipenak partekatzen dituzte, eta, oraindik ere, behar handia dago horretarako. Gai horiei buruz hitz egiterakoan, emakumeok ez gaude eroso, eta ez gara ausartzen pentsatzen duguna esatera, mutilak aurrean

badaude, batez ere, gatazka euren gelako mutilekin badago; baina, ikasgelan bertan ere, neskek isildu egiten dira askotan. Bada bigarren behar bat ere: nesken arteko elkartasun-aliantzak sortzeko espazioak behar dira. Oraindik ere, indar handia du nesken arteko lehia-sistemak, adin horietan bereziki. Neskek objektu bezala hezi gaituzte, eta subjektuak dira mutilak; adibidez, mutila da aukeratzen duena oraindik ere; gelako mutil guapoak aukeratzen du, eta horren zain daude neska guztiak. Beraz, elkarren lehiakideak dira. Edertasun fisikoaren ikuspegitik, pisu handia dauka lehiakortasunak.

Adin guztietan dute garrantzia emakumeen artean konfiantza eta aliantza sortzeko espazioek; are gehiago, neska gazteen kasuan, bai unean uneko lidergoaren inguruko lehiagatik, bai konfiantzagatik eta bai etorkizuneko harremanei begira ere. Oso garrantzitsua da elkarren aliatu garela ikustea, ondoan sentitzea, eta ez elkarren etsai gisa, eta ez dugula elkar epaituko ikustea.

Gaur gaurkoz, neska nerabeek beha-

rrezkoa dute jabeakuntza-prozesu bat egitea?

Autodefentsa-ikastaroetan, ez ditugu teknika fisikoak lantzen, ez, behintzat, hori soilik, eta are gutxiago institutueta; hori ez da gure lehentasuna. Erasoak mota askotakoak dira, eta oso sotilak dira gehienak; eguneroan gertatu ohi dira asko: iruzkin bat, txisteak, umorearen aitzakian egiten diren erasoak, bazterketa...

Eraso horiei aurre egiteko, tresna batzuk eskuratu behar ditugu, eta, tresna horiek eskuratzeko, ezinbestekoa da ahalduntzea: lehenengo, jabetu egin behar dugu. Beraz, lehen pausoa da hau neska naizelako ari zaidala gertatzen onartzea, eta ez Idoia naizelako; argi ikustea zerbait komuna dagoela neska guztioi pasatzen zaigun horren atzean. Eta bigarren pausoa da gertatzen ari zaidan hori ez dudala zertan jasan ikustea, aurre egin diezaioke dala eta mugak jar diezaioke dala ulertzea; horretarako, tresnak behar ditut, eta neure burua maitatu eta errespetatu egin behar dut, besteek ere errespetatzen nazaten.

Gorputzetik egiten dugu lan autodefentsa-lantegian, bizipenetatik, ez soilik diskurtsiboki. Gorputz-jarretarak, hitzekoa ez den komunikazioa, begirada, ahots-tonua... gauza horiek guztiak ere lantzen ditugu hainbat egoerari aurre egiten. Batzuetan, konfrontazioa izan daiteke tresna, baina, beste batzuetan, umorea bera da erasoari aurre egiteko tresna. Askotariko tresnak eskaintzen ditugu, neska bakoitzak berarentzat erosoena dena erabil dezan.

Eskola, gaur egun, espazio segurua da neska-mutilentzat?

Ni neu naizen bezala erakusteko espazio bat litzateke espazio segurua bat, epaitu gabe onartuko nauten espazio bat, naizen hori erakusteko aukera emango didana, nire akatsekin, nire beharrekin. Eta eskola ez da, nire ustez, espazio segurua bat, edonork ezin duelako libreki esan pentsatzen eta, bereziki, sentitzen duena; epaiketa asko daude, eta ez dago klonpliziterik.

Ez nuke esango espazio segurua bat denik guztientzat. Ez, behintzat, neskontzat, argi eta garbi, ez eta



arauetatik kanpo dauden edo gehien-goaren ezaugarrietatik ateratzen diren pertsonentzat ere. Oso eremu arrotza gerta daiteke. Hori guztia oro har hitz eginda diot, gerta baitaiteke gela oso jatorra izatea, eta segurtasuna sentitzea; egon daitezke, eta badaude, espazio seguruak diren gelak, eta egon daitezke, eta badaude, kontrakoak ere; eskolara joatea sufrimendu bihur dakioke ikasle bati, arauetatik edo gehiengo horretatik ateratzen bada –berdin du zergatik ateratzen den, maskulinitate-eredutik ateratzen delako, edo izan daiteke arrazarengatik, fisikoarengatik, harremanetarako zailtasunak dituelako...–.

Lehen pausoa erasoa identifikatzea litzateke. Nolakoak dira neskek jasan ohi dituzten indarkeria motak, baita eskola-testuinguruan ere?

Elkartasuna lantzen dugula esan dut, eta, horrekin loturik, autoestimua. Norberak bere burua maitatzea, maitatzen ikastea, oso garrantzitsua da, indarkeria ez baita kanpotik datorren eraso bat soilik; barneratzen ditugun agindu asko dira, eta, gero, geure buruari ezartzen dizkiogunak dira horietako asko. Txiki-txikitatik mezu asko, mandatu asko jasotzen ditugu neskok eta emakumeok, adibidez, edertasun-kanonei lotutakoak. Ez gara konturatzen zer-nolako indarkeria eragiten diogun geure buruari gai horren inguruan, nola gutxiesten dugun geure burua, eta nola jartzen dugun zalantzan, adibidez, jaten dugun guztia. Zein emakumek ez du noizbait pentsatu “hau ez dut jango”?

Neska izate hutsagatik, besteen beharrak gureen aurretik jartzen ikasten dugu, txiki-txikitatik jasotzen ditugun mezuen bidez; askotan, ez dakigu zein diren gure beharrak ere! Eta identifikatu egin behar ditugu gure nahiak.

Emakumeoi beti atseginak izaten irakatsi zaigu, beti onak izaten, beti irribarrearekin egoten, mutilen graziei barre egiten... Eta asko kostatzen zaigu horri aurre egitea. Geure burua besteen begiradaren arabera balioesten ikasi dugu, beti besteak gure beharren aurretik jarritz.

Gisa horretako indarkeria egunero-egunero jasaten dute neskek txiki-

txikitatik, neska izate hutsagatik.

Baina eskolaz kanpoko indarkeria ere bada hori.

Baina ondorio zuzenak ditu eskolan, eta, are gehiago, eskolak eraiki eta erreproduzitu egiten ditu. Esate baterako, bigarren planoan egote hori, hitz egitera ez ausartzearekin lotuta dagoena, oso barneratua dute neskek, eta argi ikusten da eskolan: zenbat hitz egiten dute mutilek, eta zenbat neskek? Zenbat mutilek altxatzen dute eskua galdera irekien aurrean, eta zenbat neskek? Neska asko ez dira ausartzen hitz egitera, eta barneratu dituzten agindu eta mezuengatik da hori. Eskolan argi ikusten den beste ezaugarri batek perfekzionismoarekin du zerikusira. Neskek oso barneratua daukate perfekzionismoaren gaia, bai edertasunari loturikoa eta bai ikasketei dagokiena. Neskak oso zorrotzak dira euren buruarekin, eta oso barneratuta dute hori. Gainera, irakasleek ere horixe espero dute haiengandik.

Indarkeria guztia ez da, beraz, fisikoa; icebergaren punta litzateke hori.

Erreferente falta, adibidez, indarkeria sinbolikoa da, eta, hezkuntzan, ikaragarriko garrantzia du horrek. Testuliburuei eta materialei dagokienez, zenbat emakume agertzen dira, adibidez, historia liburuetan, zenbat emakume zientzialari, filosofo, musikari, iraultzaile, kirolari...? Neska txiki batek, handitan zer izan nahi duen edo zer ikasi nahi duen pentsatzen hasten denean, ez badu historian gauza garrantzitsuak egiten dituzten emakumezkoen erreferentziarik, ez du bere burua irudikatuko gauza garrantzitsuak egitera irits daitekeen emakume bezala, eta ikaragarriko eragina dauka horrek neskato horren autoestimuan; bere burua mugatzen ari da, eta esparru konkretu batera bideratzen. Indarkeria sinbolikoa da hori: boteregune batzuk ukatzen ari zaizkio ume horri, eta bere buruari ere ukatu egingo dizkio, ez diotelako historiaren parte bat kontatu, eta ez diotelako erakutsi berak gaitasun horiek izan ditzakeela eta gara ditzakeela, beste edonork bezala. Irakasleak aipatuko ditu akaso

“Adin guztietan dute garrantzia emakumeen artean konfiantza eta aliantza sortzeko espazioek; are gehiago, neska gazteen kasuan, bai unean uneko lidergoaren inguruko lehiagatik, bai konfiantzagatik eta bai etorkizuneko harremanei begira ere”

“Sozializatorako sistema bat da hezkuntza, eta, gaur egun, binomio batean sozializatzen gara: edo neska zara, edo mutila. Eta eskola oso sistema eraginkorra da horretarako, ikaragarria”



emakumeak, baina, gero, ez dira inon ikusten, ez matematikan, ez musikan, ez historian... Erreferenteak falta dira irakasgai guztietan, eta argi ikusten da gabezia hori eskolatik kanpo ere: gizonenak dira kaleen izen guztiak, estatua guztiak gizonetzkoen eskainiak dira...

Beste erreferente sinboliko bat eskolaren egitura bera da: zein izaten dira eskolako zuzendariak? Irakasle gehienak emakumezkoak diren kasuetan ere, boterea duena gizonetzkoa izaten da, eta, horrela, erakusten diegu gizonak gizon izateagatik boterea dutela, eta emakumeek ez; eta mutilek ikusten dute eurak boteredunak izango direla, eta neskak, ez. Erreproduzitzen ari gara ikusten duguna. Eta emakumeak ikasten eta barneratzen ari dira botererik ez dutela izango, mendeko izango direla, pasibo, eta amen egin behar dutela.

Jolastokietakoa ere oso nabarmena da: indarkeria sinbolikoa da hor gertatzen dena ere. Nik ez badut fisikoki erdigunea okupatzen, baztertera mugatzen dut neure burua, bigarren plano batean egoten ikasten dut, ertzean egoten, isilik egoten; eta

ikasten dut ez dudala erantzun behar, askotan gertatzen baita kexatzen denak baloikada bat jasotzea. Horretarako, ikaragarriko zilegitasuna ematen zaie mutilei: “zeuk bilatu duzu baloikada, futbol-eremuan sartu zarelako”. Horren beste mutur bat bortxaketa-kasuetan ikusi izan dugu: “zeuk bilatu duzu, kalean zindoazelako gauean...”. Dagokizun eremutik ateratzen bazara, zure kulpa da gero gerta dakizukeena.

Hezkuntzak indarkeria-sistema erreproduzitzen duela esan duzu. Zer aldagairi erreparatu behar lioke irakasleak, batetik, egoeraz hausnartzeko, eta, bestetik, egoera iraultzeko?

Perfezionismoa aipatu dugu lehen. Parte-hartzeari dagokionez, irakasle bakoitzak bere jardueraz hausnartzeko, aldagai bat nori zuzentzen zaion konturatzea izan daiteke; hizketan ari denean, neskei zenbat aldiz begiratzen dien eta mutilei zenbat aldiz jabetzea. Beste aldagai bat hauxe izan daiteke: noren izenak ikasten dituen lehenengo, eta nori deitzen dion izenetik. Beste bat: ohartzea neskei

gehiago eskatzen zaiela notetan, txukuntasunean... eta mutilei gehiago txalotzen zaiela egiten duten apurra. Ahozkoa ez den komunikazioa ere kontuan izatekoa da: irakaslea nola mugitzen den; zer eredu erakusten duen; zer ahots-tonu erabiltzen duen; nola jartzen den harremanetan ikasleekin, neskekin eta mutilekin... Horiez gain, testuliburuak ere aztertu behar dira, eta curriculum ezkutua ere bai, matematikan, adibidez —ea ariketetan sagarrak erosten dituen beti emakumea den, adibidez, gauza horiek pisua baitute sinbolikoki —; eta eskolako espazio fisikoa nolakoa den ere aztertu behar da. Gelako neska-mutileen arteko harremanak nolakoak diren ere ikertu behar du irakasleak, nahiz eta eskolatik kanpoko mezuek, telebistak, batez ere, pisu handia izango duten; kontuan hartuko da irakasleak esku hartzen duen ala ez harreman horiek osasuntsuak ez direnean, edo pasatzen uzten duen...

Lehen, espazio seguruez hitz egin dugu; bada, nire ustez, neska-mutilek eskolan espazio segururik baduten hausnartu behar dute irakasleek, eta

irakasle horiek erreferente ote diren gaizki pasatzen ari diren ikasleentzat, konfiantzarik ematen ote dieten... Gertatu izan zait lantegi bat ematera joan, eta neska bat gerturatzea, etxean jasotzen dituen tratu txarren inguruan hitz egiteko, zeinen gaizki ari den pasatzen kontatzea... Ezezagun bat naiz ni. Neska horrek ez du aurkitu konfiantza eman dion inor ikastetxean, gertatzen ari zaion hori kontatzeko? Horrek, nire ustez, zerikusia dauka gelen masifikazioarekin eta gaur egun irakasleek dituzten baldintzekin. Gaur egungo hezkuntza-ereduak emaitzak lehenesten ditu; presio handia dute irakasleek irakasgaiak bukatzearekin eta gisa horretako lorpenekin, ekoizpena bideratutako makinak baitira; ez daukate astirik prozesu indibiduali begiratzeko, egoera pertsonalak aztertzeko, harremanetan denbora eta espazioak inbertitzeko, emozioak lantzeko metodologiak garatzeko... Gaur egungo hezkuntza-sistema ez dago alde horri begira; ekoizpenari begira dago, eta indarkeria-egoerak sortzea eta rol horiek erreproduzitzen jarraitzea eragiten du horrek, gaiari ez zaiolako heldu nahi.

Aipatu dituzun aldagai horiek guztiak kontuan izanda, eskola, sistema bezala hartuta, eragile garrantzitsua da eredu patriarkala erreproduzitzeko.

Bai. Sozializatorako sistema bat da hezkuntza, eta, gaur egun, binomio batean sozializatzen gara: edo neska zara, edo mutila. Eta eskola oso sistema eraginkorra da horretarako, ikaragarria. Ez eskolako egitura sistematizatuengatik soilik, ez curriculumagatik, jolastokiagatik, testuliburuengatik, jostailuengatik, materialengatik edota ipuinengatik soilik. Ereduetatik hasita, oso sistema eraginkorra da patriarkatuarentzat, irakasleek dituzten jarrerengatik.

Zergatik erreproduzitzen da hori guztia? Sistemari zergatik interesatzen zaio neskak era batera eta mutilak beste era batera hezteak?

Sistema ekonomiko konkretu bat dugulako, eta emakumeek zaintzalan batzuk doan egitea behar duelako sistema horrek. Ez da horren sinplea,

baina beharrezkoa da txikitatik mendeko-izaera barneratzen hastea eta zaintza-lanetara bideratzea, gero, sistema ekonomiko kapitalista hau mantendu ahal izateko. Umeak zainduko dituzten pertsonak, zaharrak zainduko dituztenak, etxeko lanak egingo dituztenak, senarrak eta fabrikara doazen langileak zainduko dituztenak eta afektua emango dietenak, eta abar behar baditu sistema kapitalista honek eta hori guztia doan egingo dituenak nahi baditu, horretara bideratu behar gaituzte emakumeek txikitatik. Ez da kasualitatea irakasletza, psikologia, erizaintza eta horrelako ikasketak emakumez beterik egotea, eta beste prestigio bat duten ikasketak, berriz, gizonez beterik egotea. Neskek esango dizute aske direla nahi dituzten ikasketak egiteko, baina egia beste bat da: guztiz baldintzatuta gaude, eta ez dugu erreferenterik. Sistemak, iraungo badu, generoaren araberrako rol-banaketa behar du.

Hortaz, matematikako irakaslea, historiakoa, ingelesekoa, HHkoa... sistema honen erreproduzitzailerik dira inplizituki, klik egin ezear. Historia irakasteaz gain, ereduak, erreferenteak eta rolak irakasten dituztelako.

Bai, historiako irakaslea, matematikakoa eta beste edonor, ez irakasleak bakarrik: Guztiok gara eragile sozializatzaileak, guztiok gara besteen eredu, era batera edo bestera, tabernaria, kazetaria... Guztiok daukagu eragina jendarte honen eraikuntzan; baina ardura berezia dute irakasleek, eragile sozializatzaile garrantzitsuenetakoak baitira. Erreferente dira, nahitaez –eta baita beste gai askotan ere, arrazakerian adibidez...–. Pisu handia dute, eta haien lanak ardura berezia du haur eta nerabeen sozializazioan eta eraikuntzan, edota heziketa-prozesuan.

Irakasleen artean, ordea, kontzientzia-maila askotarikoak daude. Badira irakasleak, gai honen inguruan lanean oso modu kontzientean ari direnak. Gutxi dira, baina oso modu kontzientean lantzen dute gaia. Bestelako erreferente batzuk sortzen saiatzen dira, eta bestelako harreman mota batzuk sortzen; inplikatu egiten dira. Gelan istiluren bat sortu bada, neska

batek eraso bat jasan badu, adibidez, irakasleak benetan inplikatu behar du hor, lanketa bat egin behar du. Orain, ordea, bada arazo bat: irakasleak, oro har, oso zereginez lepo daude, lan-karga handia daukate, prestakuntza-saio asko dauzkate, lan handia dute ordutegitik kanpo, gelak beteta dituzte... Eta benetako inplikazio emozionala behar da, irakasgai bat transmititzeaz gain, ikasle horientzat eredu direla jabetzeko, eta sortzen dituzten harremanak hezteko modu bat direla ikusteko. Ez dira edukiak ematen dituzten eragile hutsak; harremanak sortzen dituzte, eta emozioak, eta kontuan hartu behar dira horiek, hor baitaude nahitaez. Eta benetan eskatzen duten arreta eskaintzen ez diegunez, sistema patriarkal honen mandaturia erreproduzitzen dugu.

Baina, horretaz jabetzeko eta gauzak beste era batera egiteko, lanketa bat egin behar du irakasle bakoitzak; bestela, bakoitza bere gizon- edo emakume-motxilarekin dator gelara.

Egia da asko direla gai hau ukitu ere egin nahi ez duten irakasleak. Irakasleak sistema honetan heziak dira, eta, lanketa pertsonal bat egin ez badute, ez dira jabetuko zer ari diren erreproduzitzen... Badira ohartuta ere gai hau landu nahi ez dutenak, bai baitakite zer lan adierazten duen. Ez dute euren burua zalantzan jarri nahi, euren egiteko moduz hausnartu nahi. Kontua ez da hezkidetzaz ez dutela beharrezko ikusten; baina ez daude prest, ez dutelako lanketa pertsonalik egin nahi.

Erraza da liburu bat edo bestea lantzea, bideo bat edo bestea jartzea... Baina irakasle bakoitzak klik egin behar du, gauzak beste era batean egin nahi badira, neskak mendekotasun-egoeran eta mutilak pribilegio artean hezi nahi ez badira; hausnarketa egin behar du, egunero bere jardunarekin, lanarekin, materialekin, erabiltzen duen tonuarekin zer ari den erreproduzitzen jabetzeko.

Hezkidetzaz benetan eraginkorra izan dadin nahi badugu, ezinbestekoa da irakasleen lana. Ez da aski ikasleekin lantegiak egitea. Izan ere, askoz ere eraginkorragoa da irakasleek eurek lanketa bat egitea, beraiek baitira eredu egunerokoan (korri-



doreetako solasaldietan, curriculumean...). Baina askoz ere errazago bideratzen dira horrelako lantegiak ikasleengana, eta, azkenean, adabaki hutsak dira.

DBHko ikasleak etortzen dira zuen lantegietara; hau da, txikitatik jaso dituzten mezu horiekin dagoeneko izaera eraikita daukaten ikasleak. Zuek deserakitze-lan bat egiten duzue ondoren berdintasun-kompetentziez jabetzeko; ahalduntze-prozesu bat egiten duzue. Baina, egoera ideal batean pentsatuz, txiki-txikitatik hezi behar genituzke hzkidetzan, ezta?

Bai, gu oso berandu iristen gara. Baina, umea jaio aurretik, ume hori binarismoan eraikitzen ari gara. Nes-

ka ala mutila izan, zer erosten diogu gela apaintzeko? Zer espero dugu umeaz? Espektatiba eta imajinario oso batzuk ari gara jartzen oraindik jaio ez den haurrari, eta, neska edo mutil izango den kontuan hartuta, oso desberdina da dena. Oso desberdin tratatzen da arrosaz edo urdinez jantzita dagoen ume bat; helduok oso desberdin zuzentzen gatzazkio, gorputzez eta ahots-tonuz —“Zeinen indartsua zarean!”, zeinen polita zaren!” —. Horrela, denok emakume bat edo gizon bat eraikitzen hasten gara, eta hark bere burua guk guztiok bidaltzen dizkiogun mezuekin eraikiko du, pertsona ez baita bere kasa eraikitzen, besteen arabera baizik. Berehala ikasten dugu zer espero duten besteek gutaz, eta badakigu zer

espero den gutaz, neska izanda edo mutil izanda. Guztiok maitatuak izan nahi dugunez, gutaz espero den hori egiten dugu. Beraz, gai horiei neraberoan heltzea berandu da, bai.

Haatik, berdintasunean bizi gara maila diskurtsiboan, gure gizartea inoiz baino parekideagoa dela esaten da. Zer diskurso ekarri ohi dute zuen lantegietara datozen neskek? Eta nola hartzen dute hori guztia, gertatzen zaiena patriarkatuaren ondorioz dela ikustean, eta ikusten dutenean hori ez zaiela gertatzen neska jakin bat direlako, neska direlako baizik?

Asko kostatzen zaie gazteei egoera identifikatzeko lehenengo pauso hori ematea. Autodefentsa-lantegi irekiak egiten ditugunean, 14 urtetik gorako edonor etor daiteke; 16 urtekoak, hogeitik gorakoak eta berrogeitik gorakoak biltzen dira elkarrekin. 20 bat urtetik aurrera, egoerak gaztetan baino errazago identifikatzen ditugula ikusten da hor; hau da, erasoak, indarkeria, berdintasunik eza... identifikatzen ikasten dugu, tratu txarren ondorioz. Neska guzti-guztiori gertatzen zaigu hori. Nerabeei ez diegu galdetzen “noiz sentitu duzu eraso egin dizutela?”, ez baitakite eraso identifikatzen. Baina zera galdetzen diegu: “noiz esan duzu ez, bai esan nahi zenuenean?” Hor bai, hor gai dira ikusteko askotan nahi ez dituzten gauzak egiten dituztela, edo gaizki sentitu izan direla egoera zehatz batzuetan. Hori bai, badakite identifikatzen; ez dakite zergatik den, ez dakite hori guztia neska direlako gertatzen zaiela. Baina, gauza horiek zerrendatzen hasten garenean eta guztiei antzeko gauzak gertatzen zaizkiela ikustean, jendartea ez dela uste zuten bezain parekidea ohartzen dira.

Nik uste dut gakoa beste neskei entzutea dela; ez gara gu esaten diegunak “hau gertatzen zaizu”; aitzitik, bakoitza bere egoera kontatzen hasten denean, eta ondokoari ere gauza bera gertatu zaiola ikusten dutenean, eta haragokoari ere bai... konturatzen eta eraso identifikatzen hasten dira. Neska bakoitzak uste du hari bakarrik gertatzen zaiola gertatzen zaiona, bakoitzak berak bakarrik bizi dituela era bateko edo besteko

erasoak, elkarrekin hitz egiten hasten garen arte. Lotsagatik, ez dugu halako ezer kontatzen, eta pentsatzen dugu norberaren errua dela, edo gaizki interpretatu dugula besteak esan diguna.... Baina, ondokoari gauza bera gertatzen zaiola ikustean, konturatzen gara ez zaigula gutako bakoitzari soilik gertatzen; gertatzen zaiguna da neskak garela. Gure metodologia oso parte-hartzailea da, eta bizipenetatik eta talde-dinamiketarik eragiten dugu.

Oro har, lantegia egin ondoren, oso eskertuta ikusten ditugu neskak, ordura arte ikusi ez zituzten zenbait gai begien aurrean jarri dizkiegulako; eta nabaritzen dugu eragina izan dutela haiengan. Baina badaude, baita ere, inplikatu nahi ez dutenak. Beste batzuek diote berdintasunean bizi direla, eta ez dute hori beharrezkoa ikusten, inplikazio emozional bat eskatzen duelako, eta azalean jarraitu nahi dutelako, barrukoarekin konektatu gabe. Baina, oro har, esker oneko agertzen dira, batez ere nesken artean gauza batzuk partekatzeke espazio bat sortu delako, konfiantza-giroan.

Zuen lantegia ikastetxe batek egiten du, ondokoak ez du egiten... urte batean aurrekontuaren arabera egingo da, hurrengoan ez.... Nola sistematizatu genezake hori, Euskal Herriko haur guztiak berdintasun-kompetentzietan hezteko?

Sistematizatzea lehentasuna ematea da. Edo lehentasuna ematen diozu bestelako eredu bati, edo patriarkatua erreproduzitu duzu. Kontua da eskola-sistemari esparru asko ukitzeko eskatzen zaiola.

Berez, egon badaude sistematizazio-saio batzuk. Adibidez, ikastetxe batzuek hezkidetzako arduradunak jarri dituzte, eta ordu batzuk dituzte horretan sartzeko, lan-ordutegiaren barruan; horrelakoak, normalean, irakasleen ekimenez eta gogoz atera dira aurrera. Sistematizazio-modu bat da hori.

Horrez gain, arduradunik jarri gabe ere sistematizatu dezakezu, adibidez, urtero martxoaren 8an eta azaroaren 25ean hezkidetzako saioak eginez.

Baina, benetan eraginkorra izan nahi baduzu, hezkuntza-sistemak

eta komunitate osoak esku hartu behar dute, hezkidetzako modu integral batean lantzeko. Irakasleak bai, baina baita irakasleak eta gurasoak ere. Komunitate osoa. Ikastetxe osoa: zer material erosten den eta zer ez; nola banatzen eta antolatzen diren espazioak, jolasteko orduak, baloia bai ez, curriculum... Gauza asko ukitu behar dira, hezkidetzako modu integralean lantzeko eta eraginkorra izateko. Hori guztia sistematizatzeko lana eskatzen du; inbertitu egin behar duzu, eta ez da urtebetean lortzeko kontua.

Ez gara eskolan bakarrik hezten; denbora guztian ari gara hezten, toki guztietan. Guztiak dira erreferenteak, jendartean dauden eragile guztiak. Egia da, noski, eskolak pisu ikaragarria duela hezkuntza-prozesuan, baina gurasoak ere oso eragile garrantzitsuak dira, eta etxean erreproduzitzen denak ikaragarritzko pisua du berdintasun-gaietan. Benetan hezkidetzako landu nahi badugu, gurasoek ere nahitaez sartu behar dute planean; eskola-komunitate osoak landu behar du hezkidetzako, eta ezin da ikasleengan mugatu. Proiektu integralen aldeko apustua da eraginkorra, eta horixe da gure proposamena: ikasle, irakasle eta gurasoak hartzea, eta, ahal bada, prozesu integrala egitea, ikastetxea fisikoki aztertuz, baliabideak ikusiz...

Gurasoak oso gutxi etortzen dira hezkidetzako saioetara. Oro har, ez daukate interesik. Irakasleak ere gutxi etortzen dira, eta etortzen diren horietako asko behartuta etortzen dira, batez ere hezkidetzak norberari eskatzen dion inplikazioagatik.

Zer-nolako lanketa egiten duzue mutilekin?

Lantegia bananduta egiten denean, mutil bat aritzen da haiekin. Maskulinitate-eredu hegemonikoa lantzen dute, eta, hasteko, horrek zer kalte dituen ikusarazten da, zer kalte edo muga dituen eredu horrek, zer galtzen duten maskulinitate-eredu hegemoniko hori lortzeagatik. Baina, bestetik, eredu horrek mutilei zer-nolako pribilegioak ematen dizkien ikusarazten da.

Eskola-eremuan, argi ikusten da maskulinitate-eredu hegemonikoak

mutilei zer pribilegio ematen dizkien espazioaren aldetik: jolastokiaren erdigunea mutilek hartzen dute, eta espazio gehiago dute. Baina espazio gehiago hartzen dute gela barruan ere: gehiago hitz egiten dute, arreta gehiago bereganatzen dute...

Idealen inguruko ariketa bat egiten dugu mutil nerabeekin: zein izan da zure erreferente bat marrakizi bizi-dunetan, telebistan, film batean...? Zer ezaugarri ditu? Mutilek nabarmentzen dituzten erreferenteak, normalean, indartsuak, ausartak, independenteak... dira. Gero, eredu horrek ere zer kalte dituen ikusten da; muturreraino joanda, kartzelan gehienak gizonezkoa direla azaltzen diegu, auto-istripuetan ere mutil gehiago hiltzen dela... Maskulinitate hori besteekiko lehiari erakitzen dela ikusarazten zaie. Bakoitzak bere parekoen aurrean maskulinoa dela erakutsi behar du, eta, horren ondorioz, besteak marikoi eta ahultzat jo behar ditu, bera gailentzeko. Eredu horretan sartzen ez diren mutilei ikaragarritzko egurra ematen zaie. Besteek erabili egiten dituzte taldean sartzeko, lider izateko...

Indarkeria horren muturreko erakusgarri bat bullyinga da, eta mutilen arteko konplizitatea ikaragarria da bullying kasuetan. Isiltasuna ikaragarria da, eta indarkeria-kasu berriak ahalbidetzen ditu.

Konplizitate-itun sendo bat dago mutilen artean, eta inor ez da ausartzen hori apurtzera. Ez mutilen artean soilik, baita gizonen artean ere: taberna batean, gizon batek bere kuadrillako bat ikusten du neska bati lerdea botatzen, eta inork ez dio esaten isiltzeko; areago, txantxak egingo dituzte, beharbada, horren inguruan. Hori guztia, maskulinitate-eredu batean hezi direlako.

Baina zailagoa da mutilak mugitzea. Oro har, oso eroso daude dauden tokian, ez dute inongo beharrik ikusten, eta askoz zailagoa da hortik mugitzea. Oso-oso mutil gutxi mugituko dira dauden pribilegio-eremutik beren borondatez. Nahiz eta kontzientziaz lortu, badakite kostu bat dakarkielako... Bestelakoa da maskulinitate-eredu hegemonikotik kanpo dauden mutilen kontua.

ESPERIENTZIAK

ONDARROAKO HEZKIDETZA EGITASMOA

Harreman berdinzale eta osasuntsuetan oinarritutako herria xede

Ondarroako Emakumeen Udal Berdintasun Kontseiluaren urtetako lanaren ondoren, hezkidetza egitasmoa martxan da. Ikas komunitate osoari zuzendutako proiektua da: eskoletan zuzenean ikasleekin prebentzio lana egiteaz gain, irakasle zein gurasoak kontzientziatzen eta formatzen ere saiatzen dira, baita jantokiko eremuan nahiz aisialdikoan esku hartzen ere. Besteak beste, helburua da emakume gazteen jabekuntza pertsonalean zein kolektiboan laguntzea eta gizon gazteekin gaur egungo maskulinitate-ereduaren gainean hausnarketa egitea. Hala, eraldaketa sozialaren bidean gazteak agente aktibo bihurtzeko, aniztasuna balioan jartzeko, eta botere-harremanik gabeko erlazio osasuntsuak eraikitzeko.



Rosa Baltar Cabo Ondarroako Udaleko Berdintasun teknikaria ezkerrean; erdian eta eskuinean, berriz, Nagore Larrazabal Sanchez eta Iñigo Ranero Gonzalez Ondarroako Hezkidetza Egitasmoko hezitzaileak eta Bizkaiko Urtxintxa Eskolako kideak.

2003an du sorburua Ondarroako Hezkidetza Egitasmoak. Orduan hasi ziren bidea urratzen Emakumeen Udal Berdintasun Kontseiluaren inizatibaz, eta urteek aurrera egin ahala, proiektua gero eta integralago bihurtzen joan da. Xede nagusi batekin ekin zioten lanari has-tapenetik: herriko ikastetxe guztietan hezkidetzaren filosofia txertatzea, eta bide batez, balioen eraldaketan eragitea.

Herri hezkidetzaille bat eraikitzeko estrategikoa iruditu zitzaion Emakumeen Kontseiluari prebentzioan lan egitea, eta zeregin horri ekin zioten. Hala kontatzen du Rosa Baltar Cabo Ondarroako Udaleko Berdintasun

teknikariak: “Prebentzioaz hitz egitean, segituan haur eta gazteak etortzen zaizkizu burura. Eta horiekin lan egiteko zer hoberik ikastetxeetara jotzea baino?”. Izan ere, Emakumeen Kontseiluak argi zuen nahitaezkoa dela hezkuntzaren eremutik prebentzio lanean ere eragitea emakume eta gizonen artean eman daitezkeen ezberdintasunak eta desorekak saihesteko, eta hezkidetzan oinarritutako balioak zabaltzeko eta sendotzeko. “Aurreiritzi sexisten transmisiorako dauden tresnetan eragitea lortu nahi dugu, baloreetan oinarritutako hezkuntza sustatuz. Eta herriko ikastetxeak leku estrategikoa eta pribilegiatuak dira prebentzio lana egiteko, garapen integrala



DBH3ko ikasleak indarkeria sexistaren gaia lantzen.

bultzatzeko, eta genero estereotipoen mugak nahiz jokabide sexistak gainditzeko”, argitzen du Baltarrek.

Hasiera batean, Udaleko Berdintasun Saitetik eta Emakumeen Kontseilutik bultzatuta antolatzen zizuten hainbat egitasmotan — adibidez, matxoaren 8an ospatzen den Emakumeen Nazioarteko Egunarekin loturiko jardueretan edota Berdintasun Saitetik antolatzen ziren beste hainbat egitasmo zein proiektutan — ikastetxeen parte hartzea sustatzen hasi ziren. Alegia, ekimen puntualetan hartzen zuten parte herriko haur eta gazteek. Baina, Udala ohartu zen horrekin ez zela nahikoa eta bere ardura ere bazela hezkidetzaren sustatzeko lan pedagogikoa egitea. Hala, proiektua sendotzeko eta zabaltzeko konpromisoa hartu zuen eta 2009an Hezkidetzaren Batzordea jarri zen martxan. Bertan parte hartzen dute ikastetxe bakoitzeko ordezkariek, Emakumeen Kontseiluko kide batek, Udaleko arduradun politikoez zein teknikoez — Berdintasun eta Hezkuntza arloetakoek —, eta hezitzailetaldeak. “Hezkidetzaren batzordeak gune egonkorra eskaintzen digu proiektuaren gainean hausnarketa kolektiboa egiteko, jarraipena egiteko, eta hobekuntzak txertatzeko, zein gai berriak identifikatzeko”, azaltzen du Berdintasun teknikariak.

Komunitate osoari zuzenduriko proiektu integral bat martxan jartzea izan zen batzorde horrek hartu zuen lehen erabakia. Izan ere, arduradunen esanetan, hezkidetzaren zeharkakotasunez landu beharreko gaia da, balioen

transmisioa eremu guztietatik egiten delako: lantzen diren gai eta edukien bidez, hizkera eta jarreraren bidez, harremanak eraikitzeko moduen edota lanak banatu eta antolatzeko eren bidez.... “Beraz, ezinbestekoa da formazio jarrai eta iraunkorra jasotzea”. Horrexegatik, pixkanaka ibilbide formatibo bat sortuz joan dira, ez soilik ikasleentzat, baita irakasle zein gurasoentzat ere, eta jantokiko nahiz eskolaz kanpoko hezitzaileentzat. Azken helburua izanik emakumeekin jabetasuna pertsonala zein kolektiboa lantzea, eta gizonezkoekin maskulinitate-ereduaren gaineko hausnarketa egitea.

Nagore Larrazabal Sanchez Ondarroako Hezkidetzaren Egitasmoko hezitzaileak dioen moduan, apurka ari dira sarea handitzen, ahalik eta agente gehien hezkidetzaren bidean kokatuta egon daitezen: “Gure nahia da herri guztia hezkidetzara bihurtzea, komunitate osoa izatea agente aktiboa aldaketa honetan. Herriko eremu guztietara iristea nahi dugu proiektu hau. Balioen aldaketa espazio guztietan egin behar da”. Era berean, ikasleekin zuzenean eskolan lantzen dutena espazio publikora ere eraman nahi dute. Inigo Ranero Gonzalez proiektuko beste hezitzaileak gaineratzen duenez, eskolatik ere jendartearen eragin dezaitez: “Uste dugu eskolak eragile sozial gisa jardun behar duela, eta garrantzitsua dela haur zein gazteek presentzia edukitzea herrian, eta herritarrek ere presentzia izatea eskolan. Zentzu horretan, proiektu honek bat egiten

du herri hezitzailearen ideiarekin. Horregatik uste dugu eskola, udalak, eta herriko bestelako eragileek norabide berean jardun behar dutela”.

Hainbat eremutan eragiten

Eskola da proiektuaren jardungune nagusia. Larrazabal eta Ranero hezitzaileek LH5ean hasi eta instituturara arte hainbat gai jorratzen dituzte zuzenean ikasleekin; hala nola, bizikidetzaren, harreman afektibo-sexualak, elkarrerantzukizuna eta bizikidetzaren ez-sexista, autodefentsa feminista eta maskulinitate-ereduak. Lanbide Heziketan ere — Haur Hezkuntzako zein Erizaintzako zikloetan —, egiten dituzte tailerrak ikasleekin, besteak beste, hezkidetzaren oinarriko kontzeptua, curriculum ezkutuari garrantzia edota zaintza lanak erdigunean jartzearen inportantzia jorratzeko.

Ikasleekin LH5ean hasten badira ere lanketa egiten, Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergora arteko irakasle guztiek jasotzen dute hezkidetzaren gaineko formazioa, uste baitute premiazkoa dela adin guztietako ikasleekin irakasleek begirada berdinzalea izatea. Hala, irakasle-talde edo ikastetxe bakoitzaren beharrezko moldatutako laguntza tekniko eskaintzen diete. Gainera, ikasleekin egindako tailerren ondoren deboluzio batzarrak ere egiten dituzte, eta formazioerako nahiz hainbat gai jorratzeko unitate didaktikoak ere eskaintzen dizkiete Udaletik. Horrez gain, Beldur Barik programa ikastetxean bultzatzeko

baliabideak ematen dizkiete.

Familiatan ere fokua jarria du Ondarroako Hezkidetza Egitasmoak. Gurasoentzako hitzaldi formatuetan antolatzen dituzte jardunaldiak jolasaren, sare sozialen, harremanen... inguruan hitz egiteko. Nahiz eta, urtero agertzen diren kezken arabera, saioak moldatu egiten dituzten. Jantokiko eta eskolaz kanpoko hezitzaileei, berriz, prestakuntza ematen diete, urtean behin, hezkidetza kontzeptua bera azaltzeko eta praktika profesionalean erreproduzitzen diren joeren inguruan gogoeta egiteko; hala nola, hizkuntzaren erabilera, komunikatzeko modua, jarrerak, etab.

Urteek aurrera egin ahala, zuzenean irakasle, ikasle eta gurasoekin lan egiteaz gain, herrian berdintasuna jorratzeko egin diren bestelako proiektu batzuk ere hezkidetza egitasmoa ekarriz doaz. Horietako bat da “Emakumeen Aztarna eta Mugimendu Feministen Aztarna herrian” izeneko programa. Ondarroako emakumeen historia jasotzen duen ikerketa batean oinarriturik, herrian barna ibilbide bat sortu dute eta LH6ko ikasleekin urtero egiten dute ibilbide hori, Ondarroan historian zehar izandako emakumeen nahiz gaur egungo andreen bizimodua ezagutzeko eta balioan jartzeko.

Horrekin batera, Hezkidetza Batzordetik ekimen komunitarioak ere antolatzen dituzte herri osoari bideratuta. Hala martxoaren 8an —Emakumearen Nazioarteko Egunean—, maiatzaren 18an —Homofobiaren aurkako egunean—, eta azaroaren 25ean —Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako egunean— hainbat lanketa mota egiten dituzte ikas komunitatearekin. Proposamen didaktiko bat egiten dute edozein adinetako ikasleekin landu ahal izateko, bakoitzak bere mailan jorra dezan. Eta eskolan egindako lanketa hori sozializatzeko ekimen komunitarioak proposatzen dituzte, herriko beste elkarteekin kolaborazioan. Horretan guztian paper oso garrantzitsua jokatzeko du Ondarroako Etxelilak —emakumeen etxeak—.

Ikasleekin lanean mailaz maila

Eredu bihurtu da Ondarroako Hezkidetza Egitasmoa, eta inguruko hainbat herritan ere urratsak ematen

hasiak dira herri hezkidetzailleak sortzeko bidean. Ikas komunitate osoari zuzendutako proiektua bada ere, ikasleei bideratutako eremuak protagonismo berezia hartzen du. Izan ere, Ondarroako Berdintasun teknikariak adierazten duen moduan, hezkuntza-sistematik biztanleria osoa igarotzen dela kontuan izanik, eremu horretan eragitea oso garrantzitsua da; “urteak pasa ahala herriko gazte multzo handi batek berdintasun balioetan oinarritutako ibilbide formatibo hau egina izango du”. Horrexegatik, herriko ikastetxe guztiak ari dira lanean: Zaldupe eskolarekin, Zubi-Zahar ikastolarekin, Txomin Agirre ikastetxearekin eta Ondarroa BHI institutarekin (Lanbide Heziketako zikloak barne —Haur Hezkuntzakoa nahiz Eri-zaintzakoa—).

Haur Hezkuntzatik Batxilergora arteko irakasle guztiak formatzen diren arren programaren barruan, zuzenean ikasleekin saioak egiten **LH5ean** hasten dira. Ikasturte horretan **indarkeria matxistaren prebentzioa eta bizikidetza lantzen dituzte**, “batak bestea dakarrelako —dio Larrazabalek—; indarkeria sexistaren prebentzioa egiten dugun heinean, aniztasunaren eta bizikidetzaren alde ari gara egiten”.

Borobilean jarrita edota taldeka egiten dute lan hezitzaileek, komunikazioa modu errazean emateko eta parte-hartzea sustatzeko. LH5eko lehen saioa bazterketaren inguruko dinamika experimental batekin hasten dute, eta horri loturik azaldu ohi dira genero-estereotipoetatik kanpo kokatzen diren pertsonak askotan jasaten dituzten zigor sozialak: “Hor ikusten dugu, adibidez, taldeak nola zigor dezakeen oso femeninoa den mutil bat, oso maskulinoa den neska bat, beste kultura batetik datorren ikaskide bat... Oso gaztetatik ikusten dugu zelan daukaten dikotomiarako joera. Genero-estereotipoetatik kanpo kokatzen diren pertsonak desira sexual konkretu batzuekin lotzen dituzte. Edota, adibidez, dantza egitea oso gustuko duten mutil bat segituan zaku jakin batean sartzen dute”.

LH6an harreman afektibo-sexua-

lak lantzen dituzte. Norbere gorputzaren ezagutza eta kontzientzia-hartzea jorratzen dute, batez ere, eta horren baitan, gorputz-aniztasunari buruz ere hitz egiten dute. Izan ere, hezitzaileek dioten moduan, norbere gorputzaren kontzientzia hori oso modu desberdinean eraikitzen da familiarean, herriaren, generoaren, egoeraren... arabera. Edozein kasutan, sexualitatea lantzerakoan, ugalketaren zentralizaziotik aldentzen dira eta askatasuna nahiz plazera oinarri duen sexualitate batera gerturatzen dira; “Normalki etxetan ez dute gai horiez hitz egiten, gazteek joera handiagoa dute euren artean solasteko eta beste bide batzuetatik euren jakin-mina asetzekoa. Baina gurekin lasaitasunez jarduten dira, batetik, ez garelako irakasleak, eta bestetik, badakitelako eremu seguru batean daudela eta gero gu ez garela joango euren gurasoengana ezer esatera”.

DBH1ean elkarerrerantzukizuna eta bizikidetza jorratzen dituzte.

Saio horietan zaintzaren gaiak garrantzia handia hartzen du. Horrekin batera, harreman-ereduez ere asko hitz egiten dute. Harreman osasuntsuak eta kooperatiboak bultzatzea dute xede: “Nola erlazionatzen garen gure artean, nork hartzen dituen ardura batzuk eta nork beste batzuk, zergatik, zeren arabera banatzen ditugun ardurak...”. Harremanak eraikitzeko momentuan komunikazioak duen garrantziaz ere mintzatzen dira: nolakoa den komunikatzeko modua, bortitza den, errespetuzkoa, gorputza erabiltzen den edo ez komunikaziorako, hizkuntza sexista, arrazista edo homofobikorik erabiltzen dugun... .

Aniztasunaren balioa eta desberdin izateko eskubidea azpimarratzen dute DBH1eko ikasleekin, eta horrekin loturik, berdintasunaren diskurtsoaren gainean hausnartzen dute, ez dadin mezu hori uniformizatzailea izan, askatzailea baizik. Eta, amaitzeko, familiatan ematen diren arduren eta rolen banaketari buruz aritzen dira bizikidetza familian nolakoa den aztertzen dute: “Gure etxean zaintzaren ardura nork du? Eta zer da ardura edukitzea? Baz-



Aztarnen Ibilbidea egiten ageri dira argazkian LH6ko ikasleak.

karia prestatzea? Edota ardura hori emozionala ere izan daiteke? Gaixo gaudenean nork zaintzen gaitu?... Galdera horiei eta antzekoei erantzunez, ohartzeko gara zaintza lanak erabat inbisibilizatuta dauzkagula, eta gainera, orokorrean, emakumeek lan horien askoz ere zama handiagoa hartzen dutela euren gain”.

DBH2an, LH6an landutako gai bera —alegia, harreman afektibo sexualak— jorratzen dituzte, baina sakontasun handiagoarekin. Larrazabalek eta Ranerok aitortzen duten eran, oraindik generoaren eragina sexualitatea bizitzeko moduetan nabarmena. DBH2an heteroarauaren baitan errotutako mitoei heltzea dute helburu, praktika normatiboetatik haratago joateko: “Ireki diezaiozun irudimenari bidea eta eman diezaiozun gure gorputzari aukera gehiago. Industria kulturalak iraunarazten dituen eredu normatibo eta mugatzaileetatik haratago joateko gogoeta tartekak sortu nahi ditugu”. Azken batean, sexualitatearen inguruan dagoen eraikuntza kultural uniformeak, heteroarauaren oinarritzen dena, deseraikitzen saiatzen dira. Eta zabaltzen duten mezua argia da: modu askean eta arduratsuan sexualitatea bizitzea denon egitekoa dela.

DBH3an, indarkeria sexistaren prebentzioa lantzen dute. Zer da indarkeria? Noiz gertatzen da? Zein mota daude? Nortzuk praktikatzen dute?... eta antzeko galderei erantzunez hasten dituzte ikasturte honi dagozkion saiokak. “Askotan ez gara ohartzeko, baina indarkeriaren kultura bizi gara, eta noiz edo noiz denok erabili izan dugu indarkeria gauzak lortzeko. Gazteak horretaz jabe daitezela nahi dugu”. Genero rolak eraikitzerako orduan, botere-harremanen eta indarkeria sexistaren elementu ezberdinak identifikatzeaz gain, mutil eta neskekin lanketa bereiztua egiten dute gai honen aurrean dagozkien jarrerak garatzeko.

Hala, ikasturte horretako lanketan, hainbat saiotan neskek eta mutilak bereizi egiten dira. Maitasuna eta harreman afektiboak bakoitzak bere aldetik lantzen dituzte, azken batean maitasuna sozializatze modua oso diferentea delako nesken eta mutilen artean. “Eta eurak ere eskertu egiten dute. Horrela bestela esatera ausartuko ez liratekeen gauzak esateko aukera dutelako. Gainera, emakumeen kasuan, horrek kolektibotasuna lantzeko aukera ematen digu, baita emakumeon arteko elkarta-

sunaren gainean hausnarketa egiteko ere”. Gizonen kasuan, berriz, azken helburua da hegemonikoa den maskulinitate-eredua deseraikitzea.

DBH4an lanbide-orientazio ez-sexista lantzen dute, hurrengo urteari begira ikasketen inguruko hainbat erabaki hartu behar izaten baitituzte. Gai hori jorratzen hasten direnean, zuzenean, ikasleei burura gauza bakarra datorkie: “Ikasle onak unibertsitate eta txarrak lanbide heziketara”. Hari horri tiraka abiatzen dute eztabaida: nor da ikasle ona? Nor txarra? Zergatik etiketa hori? Zergatik erabakitzen dugu bide bat egitea eta ez beste bat? Zer dugu gustuko?

Ondoren, ikasketa batzuk edo besteak aukeratzean generoak zer nolako eragina duen aztertzen dute. Horrez gain, esparru feminizatu eta maskulinizatu aritzen dira. Dikotomia horretatik abiatuta, jakintza eta zientziaren arloan dagoen talka ere hitz egiten dute, eremu batzuei —merkatuarekin lotutakoei— askoz ere balio handiagoa ematen zaielako beste batzuei —humanitateekin zerikusia dutenei— baino. “Guk bazterrean dauden zientzia horiek ere erdigunera ekarri nahi ditugu eta balioan jarri”.

PEDAGOGO SORTZAILEAK

Rudolf Steiner

Pedagogo sortzaileak izeneko monografikoa eguneratzen dihardu Hik Hasi egitasmo pedagogikoak, eta datorren ikasturtean emango du argitara edizio berritua. Hainbat pedagogo liburuxkan txertatu aurretik, ordea, *hik hasi* aldizkarian argitaratuko du haien inguruko informazioa, pedagogiako zein psikologiako adituen eta arituen eskurik. Rudolf Steinerren inguruko ekarpen hauxe da zerrenda horretan hirugarrena.

Rudolf Steiner filosofoa dugu *Waldorf pedagogia* izenez ezagutzen denaren sortzailea, eskola tradizionala kenduta, gaur egun hedapen handienetakoa duen mugimendu horren aita. Beste hainbat joera bezala, XX. mendearen hasierako Eskola Berriaren mugimenduaren barruan sortu zen hau ere, Lehen Mundu Gerraren osteko kaos sozial eta ekonomikoaren garaian.

Datu biografikoak

Rudolf Steiner Austriako Kraljevi-ç-en (gaur egun Kroazia) jaio zen,



Irene Txurruka

Trokonizeko
Waldorf eskolako
irakaslea

1861ean, familia eta inguru pobre batean, eta Suitzako Dornach-en hil zen, 1925ean. Gaztetan, berehala erakutsi zuen ikasketetarako grina. Hasieran, institutuko irakasle izateko prestatu zuen bere burua, baina laster hasi zen goi-mailako ikasketetan eta ikerkuntzan. Lehendabizi, doktore egin zen Filosofia eta Letretan, eta, aldi berean, Matematika, Fisika eta zientzietako beste arlo batzuk ere jorratu zituen. Autodidakta bikaina zen, eta literatura, historia, pedagogia, arteak, arkitektura eta beste hainbat alor ere landu zituen. Arlo guztiak landu zituela esan daiteke.

Benetan langile nekazina zenez, eremu askotara heldu zen haren jarduna, bai irakasle moduan, bai hizlari eta idazle moduan (6.000 hitzaldi inguru eman zituen Europa osoan, eta 30 liburu argitaratu zituen), eta bai bizitzaren esparru ugarietako ikertzaile moduan.

Gaztetan, Goetheren lan zientifiko guztiak argitaratu zituen, eta, gerora, teosofiaren jarraitzaile egin zen. Dena den, joera hura alde batera utzi zuen gerora, eta bere filosofia moldatu zuen (1912), *antroposofia* deitu zion filosofia espiritualari. Antroposofiaren bidez, gizakiaren hiru dimentsioak aldarrikatu nahi izan zituen: gizakiak, gorputzaren eta arimaren dimentsioez gain, baduela dimentsio espiritualari ere zioen, eta mundua pertzepzio espiritualaren



Rudolf Steiner.

ikuspuntutik, zentzuekin loturarik ez duen adimen-maila batetik, ulertu behar dela. Beraz, berrikuntza espiritualerako mugimendu bat izan zen antroposofia, eta, antroposofian oinarrituta, beste diziplina hauek sortu zituen, garaiko gizartea eta kultura berritzeko zuen grinak bultzatuta: Waldorf pedagogia, nekazaritza biodinamikoa, medikuntza antroposofikoa, terapia artistikoak, farmakopea, gizartearen eta erakundearen antolakuntzarako hiruko eredua...

Waldorf pedagogia munduan

Waldorf pedagogia, beraz, XX. mendean hasierako aldaketa-premiei erantzun nahian sortu zen. Lehen Mundu Gerra bukatu eta gutxira, 1919an, Emil Molt industria-gizonak eskola libre bat sortu zuen Stuttgart-en, eta hura zuzentzeko eskatu zion Rudolf Steinerri. Eskola hura Waldorf-Astoria zigarro-fabrikako langileen seme-alabentzat zen. Eskaria onartu egin zuen Steinerrek, eta lehen irakasle taldea eratu eta prestatu zuen. Gainera, eskola abian jartzeaz ez ezik, zuzentzeaz ere arduratu zen. Hezkuntza- eta gizarte-

eredu bizia eskaintzea zen eskolaren helburua.

Hasi eta berehala, jende ugari hurbildu zitzaion informazioa eta prestakuntza jaso nahian, eskola berri baterako gogoak erakarrira; eta, horrela, eskola ugari ireki ziren Erdialdeko Europa osoan eta Britainia Handian, 1933ra bitartean. Tamalez, itxi egin zituen Alemaniako Erregimen Nazional Sozialistak, eskola haiek norbanakoaren autonomiarako garapena bultzatzen zutela-eta.

1945. urtetik aurrera, dena den, ekimen pedagogiko hark indarra hartu zuen berriro, eta, gaur egun, 4.000 eskolatik gorako mugimendua da. Hezkuntza-maila guztiak hartzen ditu barnean, bai eta Hezkuntza Berezia eta desgaitasuna duten helduentzako zentroak ere. Gainera, kontinente guztietan eta herrialde garatuetan (Estatu Batuak, Kanada, Australia edo Japonia) nahiz ez horren garatuetan (Brasil, Kolonbia, Uganda, India, Afganistan...) dago zabaldua mugimendua. Izan ere, era guztietako umeentzat dago zabalik Waldorf pedagogia, berdin baitio zein den haurren jatorri kulturala,

soziala edo erlijiosoa. Kasu guztietan, baina, familiek konpromisoa hartzen dute beren seme-alaben hezkuntza-prozesuarekin.

Sostengu ekonomikoari dagokionez, Waldorf pedagogia eskaintzen duten ikastetxeak era askotakoak izan daitezke: pribatuak dira batzuk, homologatuak, berriz, beste batzuk, eta badaude publikoak ere (Suedian, AEBn, Finlandian eta Suitzan). Kasu askotan, beraz, diruz lagunduta daude, eta, gainerakoetan, familiek eurek edo beste erakunde batzuek sostengatzen dituzte.

Baina, badira hiru zutabe, eskola guztietan berdina direnak: norbanakoaren berriarazko garapenarekiko errespetua, irakasleen talde-lana, eta eskolaren eta familiaren arteko lankidetzeta.

Konpromiso horiekin lotuta, Waldorf eskola ugari UNESCOren elkartutako Munduko Eskolen Sarean daude, beren hezkuntza-proiektuek, besteak beste, printzipio unibertsal hauek hartzen dituztelako barnean: ideal demokratikoak, bake-rako hezkuntza, kultura-aniztasuna, ingurumen-hezkuntza, iraunkortasuna eta elkartasuna, bai hezkuntza-komunitatean eta bai herrialdeetako eskolen artean.

Nola erakusten da Waldorf eskoletan?

Didaktikari dagokionez, irakaslearen sormena da Waldorf pedagogiaren oinarria, eta irakaskuntzaren helburu gorenak, ikasle bakoitzaren heldze-prozesua ulertzea eta errespetatzea, eta ikasle bakoitza osotasunean hezte, hau da, ikasle bakoitzaren gaitasun intelektualak, sentikortasuna eta lanerako borondatea orekatzea eta bultzatzea. Zertarako? Prestakuntza horren bidez, haurra heldua izatera heldzen denean, gai izan dadin bizitzaren erronkei erantzuteko eta etorkizuneko gizarteari ideia eta bultzada berriak eskaintzeko, benetako ekintzailea izanez; hau da, gizaki librea izanez.

Baina zer esan nahi dugu ikasle bakoitzaren heldze-prozesua errespetatzeaz eta ikasle bakoitza osotasunean hezteaz ari garenean?

Azalpenak emateko, Rudolf Steinerrek antroposofiaren bidez gizakiari

PEDAGOGO SORTZAILEAK: RUDOLF STEINER

buruz azaldu zuenera jo behar dugu, *antroposofia* hitzak berak gizakiari buruzko zientzia esan nahi baitu etimologikoki. Ikuspegi horretatik, gizakiok lau atalez edo lau gorputzez osatuta gaudela esan zuen Rudolf Steinerrek: *gorputz fisikoa* (ukigarria dena, eta mineralen munduarekin lotzen gaituena), *gorputz eterikoa* (bizitza ematen diguna, eta landareekin lotzen gaituena), *gorputz astrala* (sentimenduen atala, eta animaliekin lotzen gaituena) eta *Nia* (gizakiok gainerakoengandik bereizten gaituena).

Horrekin batera, Rudolf Steinerrek zehaztasun handiz ikertu zuen gizakiaren garapena nola gertatzen den, eta zazpi urteko etapetan gauzatzen zela konturatu zen. Beraz, gizakia zer den eta nola garatzen den oinarri hartuta definitu zuen hezkuntzak nolakoa izan behar duen edo zertan datzan Waldorf pedagogia deitzen diguna.

Haurren hezkuntzari aplikatuta, Haur Hezkuntzak 0tik 7 urtera bitarteko etapa hartzen du, Lehen Hezkuntzak 7tik 14 urtera bitartekoa, eta hurrengoak 14tik 21era bitartekoa, non haurra heldu izatera iristen den. Izan ere, gizakiak 21 urte behar ditu, bere NI propioa izatera heltzeko.

Hiru etapa horien bidez, hiru gaitasun handi eskuratzen ditugu gizakiok: pentsatzeko gaitasuna, sentitzeko gaitasuna, eta egiteko gaitasuna edo borondatea.

Etapeta horietako bakoitzean, gizakiok gaitasun nagusi bat garatzen dugu, nahiz eta, neurri handiagoan edo txikiagoan, besteak ere garatu: lehenengoan, hau da, 0tik 7 urtera bitartean, borondatea lantzen dugu; bigarrenean (7tik 14 urtera bitartean), sentitzeari loturiko eremua, eta hirugarrenean (14tik 21era bitartean), pentsamendua. Etapeta bakoitzean, beraz, alderdi horren garapena zainduko dugu.

Prozesu horretan, bestalde, garrantzitsua da haurrak nola hautematen duen mundua, eta hori ere zehaztu zuen Steinerrek, haurraren garapen osasuntsuari begira. Lehenengo etapetan, funtsezkoa da haurrak mundua **ona** dela sentitzea; bigarrenan,

berriz, **ederra** dela sentitu behar du, eta, hirugarrenean, **benetakoa** dela.

Goazen, bada, Waldorf pedagogiak etapaz etapa eskaintzen duena gehiagorik zehaztera:

1. 0tik 7 urtera bitarteko etapa edo Haur Hezkuntza

Denok onartzen dugu urte horiek oso garrantzitsuak direla gizakion garapenean. Gizakiok hiru urte behar ditugu, gureak soilik diren hiru gaitasun handi erdiesteko: zutitzea eta ibiltzea, hitz egitea eta pentsatzen hastea; eta, horrekin batera, garatzen jarraitzen dute gure burmuinak eta gure organoek. Gorputzaren indarrak, beraz, zeregin horietan egoten dira buru-belarri murgilduta.

Baina, gorputzarekin batera, badago adin horretan lantzen dugun beste alderdi bat ere: borondatea, egiteko gogo. Denok dakigu zein gogotsu ibiltzen diren haurrak dena ukitzen eta esperimendatzen, eta zein zaila egiten zaigun gogo hori egoki bideratzea.

Hori guztia jakinda, eskolaren zeregina haurrari gorputzaren zeregin horretan laguntzea da, eta oztoporik ez jartzea. Nola?

- Haurrari haur izaten utziko diogu, helduon arrazoitzeko modua alde batera utzita eta haurraren lana jolastea eta mugitzea dela jabetuta.
- Haurraren erritmoa errespetatuko dugu, hau da, mugimenduen eta atsedenen arteko oreka bilatuko dugu, birikek arnasa hartu eta bota egiten duten bezala.
- Ez gara sartuko ezagutzaren edo trebetasun kognitiboen munduan (idazketa eta irakurketan, edo matematikaren munduan), haren gorputzean lanean ari diren indarrak desbideratuko dituelako horrek, eta haren osasunean eragingo duelako; izan ere, haurrak oraindik ez du eskuratu pentsamendu abstraktua.
- Jostailu naturalak erabiliko ditugu, haurraren zentzumenak egoki garatzeko (harria, egurra, lurra, artilea, harea...). Gainera, jostailu xumeak eta

bukatu gabeak izango dira, horren beharrezkoa den irudimena garatzeko (oihalak, egur zatiak... eskaintzen badizkiegu, nahi dituzten jostailuak sor ditzakete).

- Imitazioz ikasteko aukera emango diegu. Lehen zazpi urtean, haurrek dena esperimendatzen eta dena imitatzen dute. Horregatik, askatasuna eman behar diegu mugimenduen eta jolasaren bidez imitatzeko, betiere imitatzeko moduko eredu egokiak eta ulergarriak emanez: ondo hitz eginez, koherenteak izanez, bizitza errealeko trebetasunak landuz (gela jaso eta garbitu, ogia egin, janariak prestatu, eskulanak egin, baratzean lan egin...)...
- Mugimenduarekin batera, biribilean jolasteko aukerak, abestiak eta ipuinak eskainiko dizkiegu, eta baita lan artistikoak ere (marrazki librea, akuarelak...), haurren mugimendua, hizkuntza eta barruko mundua aberasteko.
- Edertasuna, ordena, armonia, bakea... zainduko ditugu; izan ere, beharrezkoa da haurrak mundua segurua eta ona dela sentitzea, seguru eta gustura haz dadin, indarrak kenduko dizkioten estimuluak eta zirrarak baztertuz.

2. 7tik 14 urtera bitarteko etapa edo Lehen Hezkuntza

Haurraren indarrek beste bide bat hartuko dute orain. Abstrakzioarako bidea egiten hasiko dira poliki-poliki, eta, horrekin batera, sistema erritmikoa eta arnasketa garatuko dituzte fisikoki. Aurreko etapetan, mugimendua eta borondatea izan ziren ardatz; etapa honetan, berriz, sentitzeari loturiko guztiak hartuko du indarra.

Gauzak horrela, Waldorf irakasleen ustez, garrantzitsuena ez da zer irakasten duten, baizik eta nola irakasten duten, irakasteko moduak haurraren sentipenean eragingo duelako.

Eskolak prestatzerakoan, gizakia-

ren hiru gaitasun handiak (pentsatzea, sentitzea eta jardutea) jorratzen ahaleginduko da beti irakaslea, baina, betiere, sentitzeari indarra emanda, horixe delako adin horretan behar duena.

Nola egiten du hori? *Artearen bidez*, alderdi intelektuala ere artistikoki landuz; hau da, kontzeptu abstraktuak eder bihurtuz, marrazkien bidez, ipuinen bidez... Horrela, erraz eta eder bihurtzen da haientzat oraindik zaila dena. Eta mundua ederra eta ulertteraza dela barnerrazten dute.

Beraz, egiten duen guztia artistikoa, bizia eta piktorikoa izan dadin ahalegintzen da Lehen Hezkuntzako irakaslea, edozein gai ematen duela ere.

Hona hemen Lehen Hezkuntzaren ezaugarri batzuk:

Artearen balioa: zerbaitetarako balio duten eskulan ugari egiten dituzte urte osoan zehar (puntuak eginez, josiz, kakorratzean arituz, egurra landuz...); egunerokotasuna bustitzen du musikak (kantatuz, musika-tresnaren bat joz...); ohikoak dira errexitatzea eta antzerkia ere, bai eta marrazkigintza, akuarela, modelatua eta antzeko arteak ere.

Haurrek ez dute ez azterketarik, ez testulibururik. Irakaslearen-gandik datorrena ederra denez, harengandik datorrena onartuz eta maitatuz ikasten dute, eta, horretan, sobera daude azterketak. Bestalde, irakasleak erakusten die mundua ikasleei, bere bizipenen, bere hitzaren eta bere ekintzen bidez, ez testuliburuak; gero, haurrek jasotako horrekin guztiarekin, beren testuliburua sortzen dute, irakasleak lagunduta. Koaderno artistikoak egiten dituzte benetan, kolorez eta marrazkiz beteak.

Eskola-ordu printzipalak dira eguneko lanaren ardatzak, eta gaiak periodikoki lantzen dira. Goizeko lehen bi orduak izaten dira eskola-ordu nagusiak, eta arnasketa-saio baten antzera antolatzen dira. Lehenengo, atal erritmikoa garatzen da. Saio horretan, mugimendua,



Trokonizeko Geroa eskolan Waldorf pedagogian oinarrituz egiten dute lan.

ahotsa eta musika lantzen dira, erritmoen, poesiaren, errexitatzeen, kantuen eta jolasaren bidez. Atal horren bitartez, lan kognitiborako eta beren hazkuntza osasuntsurako lagungarriak diren trebetasun ugari eskuratzen dituzte ikasleek.

Atal erritmikoak, bestalde, ikasle bakoitzak taldearekin bat egiteko eta ondorengo kontzentrazio handiagoko unerako prestatzeko balio izaten du. Atal erritmikoaren ondoren, beraz, ikasketa akademikoaren tarte etorriko da. Tarte hori ere modu artistikoan gauzatzen da, irudien eta kontakizunen bidez. Eta bere erritmoa du; izan ere, gai bakarria lantzen da lau bat astean. Hau da, periodoa deitzen diogun denbora-tarte horretan, gai bakarrean murgiltzen gara, eta, gero, hurrengo periodoan, beste batean, horrela gai guztiak (matematika, hizkuntza, historia, geografia...) txandakatuz. Periodoen bidez lan egiteak aukera ematen digu gaien sakontzeko eta ikasleak askotariko informazioa emanez ez nahasteko.

Bestalde, bere egitura du eskola-saio printzipal batek ere:

- Lehenengo, aurreko egunean egindakoa gogoratzen da. Burua lanean jartzeko unea izaten da hori.

- Hori egin ondoren, koadernoan jasotzen da, txukun eta modu artistikoan. Borondatea abian jartzeko unea da, idaztea eta marraztea eska-

tzen duelako.

- Bukatzeko, irakasleak zerbait berria gehitzen dio gaiari, hurrengo egunean gogoratu ondoren koadernoan jasoko dutena, hain zuzen. Esan behar da, entzunez, ikasleei beren irudiak edo bizipenak sortzen zaizkiela barruan; nolabait ere, barruan birsortu egiten dute entzundakoa, eta horrexek lagunduko die gero sortzaile izaten. Entzundako horretatik, beren marrazkia, beren ideia propioa ateratzen dute, ez ezer itxirik.

Eskola-saio nagusia bukatzeko, lasaitzeko unea etortzen da, irakaslearen ipuina edo kontakizuna entzutekoa, edo, beste era batera esanda, haurren barne-munduari hitz egiteko unea. Edonola ere, ez da guztiz lasaitzeko unea, istorioari jarraitu egin behar zaiolako egunez egun. Lehen Hezkuntzako urte bakoitzak bere kontakizuna dauka, haurren une ebolutiboari laguntzeko helburua duena: maitagarrien ipuinak, kondairak, fabulak, hainbat herrialdetako mitologia...

Gero, jolas-ordua etorri ohi da, eta, jolas-orduaren ondoren, gaine-rako gaiak landuko dira: atzerriko hizkuntza, gorputz-heziketa, musika, eskulanak...

Saio horiek ere eskola-saio nagusiaren egiturari jarraituko diote: gogoratu, koadernoan jaso, eta zerbait berria bizi.

GALDEIDAZU

ZER-NOLAKO MASKULINITATE-EREDUA ERREPRODUZITZEN DU ESKOLAK?

Horrelako galdera batek problema handiak planteatzen ditu, ez baitu aintzat hartzen dagoen aniztasuna. Eta, gainera, hasieratik hasteko, argi utzi beharko genuke lehenengo eredua, beti, etxetik jasotzen duguna dela eta horrek ezartzen dituen oinarrien gainean, gero eskolak, gizarteak, he-
dabideek eta sareak eragin bat dutela, baina oinarria etxekoa da.

Ezberdina izango da auzo bateko eskola txiki bateko LHko gela batean zer eredu eskain litekeen, edo hiri handi bateko unibertsitateko fakultate zehatz bateko eredua. Eskola hori txertatuta dagoen inguruneak eta komunitateak eragina du, eskola ez baita independentea, gizartearen eta bere ingurunearen isla bat da. Orduan, zer maskulinitate-eredu erreproduzituko du? Hegemonikoa; bere ingurunean ohikoa den eredu hori. Baina, egia da, aniztasun guztian, eragile bakoitzak bere ñabardura gehitzen diola, ondorioz, ez da berdina izango irakasle batek edo beste batek igortzen duen eredua.

Hasteko, adin txikieneko haurren eredua eredu absentea da, hor ez baitago irakasle maskulinorik, eta horrek eragina dauka: “Gauza hauek ez dira batzuentzat; gauza hauetaz arduratzten direnak emakumezkoak dira. Ni



IBON ARRIZABALAGA ARREMANITZ-EKO KIDEA



emakumezkoa naiz? Ez? Izan nahi dut? Zer gauza egin behar ditut haiek bezala izateko, zer gauza egin behar ditut ezberdina izateko eta, ondorioz, gizona izateko?”. Hori absentziaren bidez ikasten da, bai etxean eta baita eskolan ere. Unibertsitatean, aldiz, % 80tik gora irakasle gizona izaten dira, horrek adierazten duen prestigioarekin, ardurarekin, pribilegioekin...

Gaur egungo eskola mutilentzat pentsatua zegoenaren gainean pentsatua dago, eta hori ere gogoan edukitzea komeni da. Gaur egungo eskola-sistema mistoa da, baina ez zuten sortu mutilen hezkuntza eta nesken hezkuntza bateratzetik eta uztartzetik, mutilena zabaldu zuten denentzako, eta bidean gelditu ziren neskei zuzenduriko curriculumeko arlo asko, etxeko ardurak, zaintzak, emozioak, tratu onak... Eskola mistoa da, baina ez da eskola hezkidetzailerik. Eskola berean urte kopuru mordoia pasa ostean, bi multzo nagusitan sailkatuta ateratzen dira ikasleak: neskek eta mutilak. Hezkuntza bera jaso baldin badute, hori nola da posible? Ba ez delako sistema hezkidetzailerik, ez zaielako gauza bera eskaintzen batzuei eta besteei. Hor ikusten ez dugun zerbait ari da gertatzen: transmisio hori ez dago curriculumean —ez baitago curriculum bat neskentzako

eta beste bat mutilentzako — , curriculum ezkutuan baizik.

Aipatu dugun erreferente falta da horren adibide bat, eta dituzten erreferenteek ere hurrekiko aurreiritzi batzuk dituzte: neskez gauza batzuk espero dituzte eta mutilengandik beste batzuk. Horrela erreproduzitzen da eredu. Adibidez, patioa denentzako berdina da, baina espazioaren erabilera ezberdina da eta espektatiba desberdinak ditugu; nor espero ditugu korrika batetik bestera baloi baten atzetik? Ez ditugu haur guztiak espero. Espazio bera da baina erabilera ez; eta guk espero duguna bete egiten da. Irakasle bezala ze espektatiba ditut? Nori eskatzen diogu ikaskideen lanak jasotzea? Nori eskatzen diogu pertsiana jasotzeko? Norengan fiatzen gara gauza batzuetarako eta norengandik espero dugu oker jokatu duela? Hori transmititu egiten da. Mutilek beti kexa hori dute: bronka guztiak beraientzako dira, edozeren errudun beraiek jotzen ditugu; arrazoiarekin batzuetan, bestetan ez.

Gizartean nagusi den maskulinitate-ereduak intelektuari garrantzi handia ematen dio. Badirudi gorputza burua garraiatzeko bakarrik dugula, eta gainontzean hezkuntzan enbarazu egiten du gorputzak. Nahiko genuke disko gogorarekin egin lan zuzenean; baina gorputz bat dago, mugimendua behar duena, aspertu egiten dena, mina, ezinegona daukana, gaixotasunak... baina hezkuntzak ez du hori guztia kontuan hartzen.

Horrez gain, norgehiagoka edo lehia sustatzen du eredu honek: notak. Lehenengo edo gaintetik gelditzeko premia dago, nabarmentzeko premia. Eta errepikatzaileak daude, eta kanpora gelditzen direnak, eta hurrengo fasera pasatzen ez direnak, eta bidean gelditzen doan jendea. Sarien eta zigorren sistemak hori sustatzen du.

Maskulinitate-eredu hau, gainera, indibidualista da, insolidarioa da. Lehia horretan, bat bakarrik izan liteke irabazlea; ez dago lekuri birezat. Laguntasuna apurtu egiten da, ezin gara pareko izan, bat geldituko da gaintetik eta bestea azpitik. Ondorioz, berehala ikasten dugu dominazio-jokoan aritzea, menderakuntza sisteman oinarritzen baita eredu hau; ez dago koope-

razioarentzat lekuri. Ikasi behar dugu beste mutilak menderatzen eta neskek menderatzen, eta adin txikiagoak menderatzen, eta jangelako langileak menderatzen... Egunero ikusten dute hurrek jangelako langileek zer balio gutxi duten gure gizartean, eta mutil izateagatik bakarrik horien gainean geldituko direla ikasten dute.

Honek ondorio gehiago ditu: nik ikusten badut, mutil izate hutsagatik pribilegio batzuk jasoko ditudala, zertarako ahaleginu behar dut? Zertarako izan behar naiz ikasle saiatua, arretatsua? Maskulinitate-eredu honek sustatzen du mutilek letra txarra izatea; estutxe gabe edo liburu gabe edo koaderno gabea joatea klasera; zaborkeria sustatzen du, trakeskeria... Gainera, mutil batek gauza horiei arreta jartzen badie, nesken antzeko bihurtzen da, eta neskek azpian egoteko estamenduari dagozkio, orduan mutil hori nesken antzekoa baldin bada, antzeko trataera espero dezake beste mutilengandik. Hori guztia eskola-porrotarekin lotua dago: eskola-porrot maskulinitate-eredu honen ondorio bat da; mutilek ez daukate pizgarririk ikasle saiatuak izateko. Dauzkatenak galtzen doaz, beraien kideak direnek esaten baitiete, “onena izateko gaizki zoaz; onena izateko menderatzailea izan behar zara, eta zaborra; izan behar zara oldarkorra, izan behar zara bortitza; ez adimentsua, arretatsua, zaintzailea, solidarioa”. Prestigioa ematen zaio besteak zapaltzeko prest dagoenari, hori da taldea gidatzen duena, beldurra ematen baitu. Horri aurre egiteak esan nahi du bortizkeriari aurre egitea, eta ez dakigu bortizkeriari nola egin aurre. Etxean, gizarte honetan, nazioarte-mailan... bortizkeria da gatazkak konpontzeko bide eraginkor bakarra.

Eredu hegemonikoaren beste ezaugarri bat da neskek bereiztea, eta neskek azpiratzea. Horrek dakar, bereizketa egin nahi ez duten mutilekiko ere tratatu txarra, eta homofobia, bereziki nerabezaroan. DBHn eta Batxilergoan mutilekin maskulinitatea lantzean ikusten dugu elementu nagusia homofobia dela. Homofobia desaktibatze ahalegin txiki bat egin gabe beste ezer ezin da egin, homofobia martxan dagoen bitartean ez baiti-

Gaur egungo eskola-sistema mistoa da, baina ez zuten sortu mutilen hezkuntza eta nesken hezkuntza bateratetik eta uztartzetik, mutilena zabaldu zuten denentzako, eta bidean gelditu ziren neskei zuzenduriko curriculumeko arlo asko, etxeko ardurak, zaintzak, emozioak, tratatu onak...

Badirudi gorputza burua garraiatzeko bakarrik dugula, eta gainontzean hezkuntzan enbarazu egiten duela gorputzak. Nahiko genuke disko gogorarekin egin lan zuzenean; baina gorputz bat dago, mugimendua behar duena, aspertu egiten dena, mina, ezinegona daukana, gaixotasunak... baina hezkuntzak ez du hori guztia kontuan hartzen.

Homofobia desaktibatze leku egin behar diegu emozioei, afektuek leku bat izan behar dute.



ra elkarrekin fiatzen: mutilak elkarren aurkari dira eta elkarren mehatxu. Ez dago margenik, ez dago aukerarik aniztasunerako, elkar ukitzeko, elkarri gauza politak esateko... homofobiak mutilen arteko tratu onak debekatzen ditu, beste mutil bat ondo tratatzeak agian esan nahi du mutilak dituzula gustuko, eta kasu horretan, eredu honen arabera, zigorra merezi duzu, arbuioa, bullyinga eta taldekoa ez izatea. Homofobia deskatibatu gabe ez da posible aurrera egitea.

Nola desaktiba daiteke homofobia?

Batetik, ez gara gehiegi kezkatu behar aurre-nerabezaroan eta DBH 2-3n sekulako gorroto esplizittoa agertzen badute *marikoekiko*, adin horretan gertatzen ari diren aldaketa fisiologiko eta psikologikoen eraginez, segurtasun falta handia sentitzen baitute, eta eruedetan bilatzen dute egonkortasuna, muturrera joz, bai neskek eta bai mutilek. Adin horretan mutilak urdinak ez, urdin ilunak dira; eta neskak arrosa ez, fuchsia arrosa. Horrek segurantzia ematen diete, “nik ez dakit zein naizen, baina badakit egon behar den lekuan nagoela”. Gero, adinare-

kin ikusten joaten dira zer gustatzen zaien, zerk ematen dien nortasuna, kirol bat, musika hau, janzkera hau... eta hortik eraiki dezakete mundu propioago bat, segurtasuna ematen diena. Baina adin batean ez dugu esan behar, “nerabe hauek non daude!?” Nerabe horiek daude gurea bezalako gizarte batean egotea tokatzen zaien lekuan. Perspektiba zabaldu egin behar dugu: nerabeak ez dira inor baino homofoboagoak, gizarte hau da homofoboa, eta nerabeak hor babesten dira.

Bestetik, saiatzeko gara kontaktu fisikoa bilatzen mutilen artean. Ez da erraza izaten, baina oraindik gustatzen zaie gerrara jolastea, edo borrokak... eta batzuetan posible da kontaktu fisikoa bilatzea. Homofobia desaktibatzeke leku egin behar diegu emozioei, afektuek leku bat izan behar dute. Hitz egiten eta entzuten hasi behar dugu. Homofobiak dakarren beste gauza bat elkarri ez entzutea baita; txanda sistema bat behar dugu, besteek esateko dutena entzutea garatzeko, eta hori ikas dezakegu hemen denok gaudela berdin, denok gaudela besteek gutaz

esango dutenaren beldur eta adi. Orduan hortik jo dezakegu: “Igal denontzako hobe izango da ez badugu elkar zigortzen, elkar axola dugula adierazteko ondo dago esatea, ‘asko pozten naiz gaur zu ikusteaz berriro’, edo ‘zu zara nire lagunik onena’, eta ez horren ordez kopeteko bat ematea, edo zangotraba egitea, edo irain batekin adieraztea, ‘nirekin zaude’, ‘gustuko zaitut’, ‘inportantea zara niretzat’. Mutilentzat hori ez dago aukeren artean.

Eredu hegemonikoaren beste ezaugarri bat da heterosexuala izan behar dela. Orduan, zenbat eta lan gehiago egin sexu desiren aniztasunean eta kolore guztietako esperientziak daudela azaltzen, eta guztiak direla onargarriak adierazten... indarra kenduko dio ‘marikoia’ etiketari, eta ate berriak zabalduko ditu.

Kirola eta teknologiak dira eredu hegemoniko honen beste bi ezaugarri; horiek dagozkio mutil izateari, eta ez bestelako ikasketa batzuk eta bestelako aktibitate batzuk. Mutilek emozionalki daukaten hutsunea eta horrek sortzen dien ezinegona edo kirolera edo teknologiara bideratzen

dute. Akbititate fisikoaren bidez adrenalina askatu eta horrek sortzen duen halako baretasun-egoera horren bidez edo teknologiarekiko mende-kotasunaren bidez alienatzen dira. Guk, mutilok, ez daukagu sarbiderik gure afektibitate, hori da eredu honen ondorio zuzena. Afektibitatea bizitzerik izango bagenu, beste-lakoak izango ginatke.

Eredu honek daukan ondorio nabarmenena da sexismoa erreproduzitzen dugula.

Neskak gelan isilaraziak eta gutxietsiak egoten dira eta horrela beraien gaitasunak eta ekarpenak galdu egiten ditugu, ez dira entzuten. Gelaren baliabide erdia zaborretara doa inork jaso gabe. Baina mutilen gaitasunak eta ekarpenak ere galdu egiten ditugu, arreta okerreko arrazoiengatik bakarrik jasotzen baitute, disruptiboki. Denbora, arreta eta espazio gehiago hartzen dute; irakasleek lehenengo mutilen izenak ikasten dituzte, haiek geldiarazi behar “baitituzte, entzun ezak!”, “Isildu adi...” neskak beraien lekuan daude, isilik... eta galdera bat egin eta zuzen erantzuten dute. Askotan neskak gauza homogeen bilakatzen dira, ez bada, bere ereduarekin bat ez datorren ezaugarriren bat duelako.

Eskola-porrota dakar eredu honek, baina baita gizarte-porrota ere. Maskulinitate-eredu honek ez digu uzten bestelako gizarte-eredu bat garatzen. Denok gaude beldurrez, mutil haserretuen beldur: mutilak beste mutilen beldur; neskak mutilen beldur; eta helduak ere nerabe haserretuen beldur gara. Taldeak ematen dien babesarekin edozer gauza egin dezakete mutil nerabe horiek.

Eredu honek nesken autoestimua okertu egiten du; beraiek ikusten dute mundu honetan zenbat ahalegindu behar duten beraiek leku batera iristeko, eta, besteak, ahalegindu gabe bertan daude dagoeneko. Nesken ahotsa entzunarazteko bost aldiz esanda ere ez da gertatzen. Neskek hori txikitatik bizi dute. Zenbat iraun dezake autoestimua on batekin mundu honetan, non eguneroko hamaika aldiz esaten zaizun zu, neska izate hutsagatik, gutxiago

zarela, gutxiagorako balio duzula, ez zarela hain azkarra, gauza batzuk ez dituzula inoiz lortuko...?

Mutilekin homofobia lantzen dugun bezala, neskekin autoestimua, norbere burua baloratzea eta nesken arteko elkartasuna lantzen ditugu. Talde bezala aurre egiten ez badiote neskek, mutilek beti irabaziko dute. Emakumeak batu arte, mundu hau sexista izango da. Hamaika modu asmatu dira emakumeak banatzeko eta elkarren aurka jartzeko. Hori erreproduzitzen dugun bitartean, sexismoak jarraituko du. Emakumeen arteko ahizpatasuna garatu behar da, eta horretarako autoestimua zaintzea funtsezko lana izango da. Nire autoestimua igotzen da talde bateko kide sentitzen naizenean, denok elkarrekin gaudela sentitzen dudanean eta batzen gaituen helburu bat dugula. Taldeak laguntzen die neska nerabe askori egoerari buelta ematen.

Sexismoaren erreproduzioa ematen da indarkeriaz edo indarkeriaren mehatxuz. Bortizkeriarik ez balego, sexismoak galduko luke bere arma potenteena. Sexismoa erreproduzitzen da inor ez delako ausartzen hori beste era batera egin daitekeela planteatzera. Ausartzen direnak, batzuk bidean gelditzen dira, zorioenez beraien eredu hartzen dugu eta balio digu beste bide batzuk pizteko. Baina aldaketa bat planteatu dutenek beti jasan dute indarkeria. Emakume sufragistek, edo gaur egun feminista izateak zer-nolako eraso pila dakarren... edo harreman bortitz batetik banandu nahi duen emakume batek... ausartek beti jasotzen dute bortizkeria dosi handiagoa. Horren aurrean, ohitzen gara ohiko dosira, eta eroso gaude hor. Baina beti dago indarkeria.

Baina, berriro gogoratu behar dugu: eskolak eragin mugatua du. Mutiko baten ibilbidean, mutil izango dela dakigun momentutik ezberdin tratatzen hasten gara. Badaude ikerketa batzuk esaten dutenak momentu horretatik ezberdin hitz egiten zaiola fetuari. Mutilei gutxiago hitz egiten zaie eta ozenago hitz egiten zaie, tonua ezberdina da, eta mezuak ere desberdinak dira. Neskei

Batxilergoan mutilekin maskulinitatea lantzean ikusten dugu elementu nagusia homofobia dela. Homofobia desaktibatzen ahalegin txiki bat egin gabe beste ezer ezin da egin, homofobia martxan dagoen bitartean mutilak elkarren aurkari dira eta elkarren mehatxu. Ez dago margenik, ez dago aukerarik aniztasunerako, elkar ukitzeko, elkarri gauza politik esateko... homofobiak mutilen arteko tratatu onak debekatzen ditu.

Eskola-porrota dakar eredu honek, baina baita gizarte-porrota ere. Maskulinitate eredu honek ez digu uzten bestelako gizarte-eredu bat garatzen. Denok gaude beldurrez, mutil haserretuen beldur: mutilak beste mutilen beldur; neskak mutilen beldur; eta helduak ere nerabe haserretuen beldur gara. Taldeak ematen dien babesarekin edozer gauza egin dezakete mutil nerabe horiek.

Nik irakasle bezala, hezitzaile bezala, tartea baldin badaukat barne lanketa bat egiteko, eta hori nire lankideekin partekatze, hortik igual sor ditzakegu proiektu pedagogikoak non afektibitatea erdigunean dagoen

gehiago hitz egiten zaie, eta goxoago, gauza gehiagori buruz, eta era horretan beste lotura bat garatzen da.

Mutikoa jaiotzen da eta handik gutxira ez zaio onartzen negar egitea. Bihotzeko zauriei prozesu naturala egiten utzi beharrean, negar egiten utzi beharrean, ez diogu uzten osatzen. Negar egitea da gure zauriak osatzeko daukagun tresna ikaragarri bat, baina mutilei lehenago kentzen diegu tresna hori, honako mezu hau helaraziz: “Zure minak eta zure sentimenduek ez dute garrantzirik; badaude gauza garrantzitsuagoak eta horiek atenditu behar dituzu. Gizarte honetan zure funtzioa garrantzitsuegia da emozioetan denbora galtzen ibiltzeko”. Une horretan gertatzen da neskekiko lehen etena: “Neskek negar egin dezakete, eta nik min berbera hartu dudana arren, ez didate uzten negar egiten”. Hasieran mutilak gaizki hartuko du debekua, baina gero justifikatu egingo du tratu desberdina jasotzea: “Izango da, neskek egiteko duten horrek ez duela garrantzi handirik; ni inportanteagoa naiz”. Era horretan mutilak hasten dira neska gutxiagotzat hartzen, eta gaizki tratatzen. Negarrez uzten, azken batean, zeini inporta zaio nesken negarra. Hor dagoeneko neskak galdu ditugu, lehen denak lagunak ziren, elkarrekin jolasten ziren, sexuak ez zuen inporta; inporta zuen bakarra jolasteko prest egotea zen. Hor galtzen ditugu erdiak; eta geroxeago mutilak ere galduko ditugu, lehiagatik mutilak elkarren arerio bihurtzen gara, eta

bakarrarentzako lekua gelditzen da, eta deskonfiantza eragiten du. Era horretan, mutilak bakartzen goaz. Eutsi baldin badiogu beste mutilen batekin gertuko harremanen bati, eta pubertaroa iristean elkarrekin bagaude, era batera edo bestera gizartea arduratuko da harreman hori hausteaz, gizartea beldur baita bi mutilen arteko gertukotasunaz.

Aldaketa posible da?

Eskolatik zerbait aldatu nahi badugu, gure eragin-ahalmena onartu behar dugu, eta gure eragin ahalmena mugatua dago. Ikasgelan galaxia desberdinetatik ailegatutako izakiak ditugu, eta bakoitzari bere galaxiaren berri ematen utzi behar diogu, bestela ikasle hori galduko dugu. Oinarri horretatik zerbait egin daiteke, zeren ikasle horren etxeari leku egiten badiogu ikasgelan, bera prest egongo da erreferente berriei leku egiteko: “Ados, nire etxean gauzak modu batera egiten dira, baina ez da unibertsoan dagoen gauzak egiteko modu bakarra. Hemen horrela egiten dute, han bestela...” eta ikasle horri atea ireki egiten zaizkio. Hori gako garrantzitsu bat da.

Beste gako garrantzitsu bat hezitzaileengan dago. Hezkuntzan gabiltzanok etengabe geure buruak errebisatu behar ditugu, bestela curriculum ezkutua transmititzen ari gara. Ni ari baldin banaiz berdintasunaz hitz egiten, baina ondokoa hitz egiten hasten den aldioro hitza kentzen badiot, dena esaten ari naiz: diskurtsoa badakit baina ez dut lanketa minimoena ere egin, eta ez naiz kontzientea nola jarraitzen dudana nire pribilegioei eusten hortz eta atzamarrekin. Lanketa hori etengabe egin behar dugu hezitzaileok; andereño bat baldin banaiz eta espero badut nire mutiko ikasleek ez dutela zarata besterik egingo eta beraiek izango direla gauzak hausten dituztenak... azkenean nire ikasleek, leialtasunez, kunplitu egingo dute nik beraietaz espero dudana. Gure aurreikuspenak bete egiten dituzte ikasleek: guk onena espero badugu, onena ematen digute; espektatiba txarrak baditugu, leialtasunez, bete egingo dituzte.

Lan inportanteena pertsonala da, hezkuntzan dagoen heldu horrek egin behar duena modu jarraikor batean. Horretarako egitura eta zerbitzuak behar dira, irakasle-lanetan ari direnek ez dauzkaten baliabide asko behar baitituzte, batez ere baliabide humanoak, denbora, norbere buruari dedikatzeko denbora, eta entzuna izatea. Hezkuntza-prozesuan ardura dutenak zaindu behar ditugu, baina sistema ez da ari horretaz arduratzen, sistema irakasleei gero eta gehiago exijitzen ari zaie, gero eta gehiago estutzen, ratioak igotzen, baliabideak okertzen... eta horrela ez da posible egoera hauek aldatzea.

Nik irakasle bezala, hezitzaile bezala, tartea baldin badaukat barne lanketa bat egiteko, eta hori nire lankideekin partekatze, hortik igual sor ditzakegu proiektu pedagogikoak non afektibitatea erdigunean dagoen, eta agian eraiki ahal izango dugu eskola zaintzaren eta beharren arabera eta ez espektatiben arabera. Baina nire urgentzia emaitza akademikoak bermatzea baldin bada, hor beste ezer ez da kabitzen.

Guk Harremonak programan hiru gakotan ardatzen dugu aldaketa: tratu onak, sexuen hezkuntza eta hezkidetza. Tratu onak txertatu behar ditugu eskolan, plazerari leku egin behar diogu, gorputzari leku egin behar diogu; kontaktu fisikoari ere leku egin beharko genioke, gizakiok ukitzeko eginak gaude, eta hori gabe ez gara hazten. Hezkidetza ezinbestean curriculum ezkutu horiek desaktibatze eta sexuen hezkuntza beharrezkoa da aniztasunari leku egiteko eta plazerari eta gorputzari atea zabaltzeko. Hiru ardatz horien arabera lan handia dago egiteko, baina ez ikasleekin eta irakasleekin bakarrik, baizik eta komunitate osoarekin, familiarekin, herriko eragileekin, elkarrekin, udalekin... emaitzak emango dituen lana.

Eta hau guztia umorez hartu behar dugu. Eta ikasi behar dugu gure lotsak eta erridikuloak kudeatzen. Eredua zalantzan jarri eta pixka bat lotsagarri jarrita denok egin behar genuke barre jokatzeko ari garen rol horretaz.

ARGITALPENAK



ZATIKIAK

Rosie Dickins / Benedetta Giaufret eta Enrica Rusina

TTARTTALO

Liburu honek leihatilak ireki eta zatikiak ezagutzeko aukera ematen du, dezimaldunak eta ehunekoak. Zatikiak zer diren eta nola erabil daitezkeen ikas daiteke. Azken batean, irakurleak zatikien horma eraikiko du, zatiki-familiak ezagutuko ditu, eta zatikiekin prestatu-riko erronken aurrean nola moldatzen den probatu ahalko du.



USMAFIN INSPEKTOREAREN INKESTAK

Christian Souchard

IKAS

Zortzi urtetik gorakoentzako ikasmateria da eta 64 polizia-inkesta eskaintzen ditu ebazteko. Matematiketan eta zientzietan biziki baliagarri diren arrazonamendu eta logika-praktikak lantzeko aukera ematen du. Era berean, irakurketa eta ulermena jorrazteko parada ere eskaintzen du. Ikastalde anitzetan probatu dute fitxategia.



BEROKI GORRIA

Patxi Zubizarreta / Yolanda Mosquera

IBAIZABAL

Gerratik ihesi Santurtziko portutik itsasontzian Ingalaterrara joan ziren umeen ibilerak kontatzen dira liburu honetan. Gerrari buruzko dokumental bat egiten ari zelarik sentitutako zirrarak plazartu nahi izan ditu istorioan Zubizarretak: gristasuna, bakardade gorria, beldurra, Jose mutiko gaixoaren eta Luis Cernuda poetaen arteko harremana...



PRINTZESA PUZKERTIA

Arrate Egaña / Manu Ortega

EREIN

Neska batek arazo txiki bat dauka: puzkerrak botatzen ditu modu kontrolaezinean. Pozik bizi da, ordea, inguruak babestua: izan ere, printzesa bat da, errege-erreginen alaba. Horregatik erabakitzen du bere gaitza sendatu egin behar duela. Hortik aurrera, bere bizitza aldatuko duten zenbait abentura biziko ditu.



BOST MINUTUKO LASAIALDIA

Jill Murphy

PAMIELA-KALANDRAKA

Itzel andreak erretilu bat hartu zuen, eta haren barruan jarri zituen te ontzia, esne pitxerra, ogi xigortua mermeladarekin eta bezperan sobratutako pasteltxo bat. Bost minutuko atsedenditxoa egiteko prestatzen ari zen. Izan ere, minutu baketsu eta lasai batzuk baino ez zituen nahi, mundutik bakartzeko eta bere pentsamenduetan murgiltzeko.



ISPILUTXO

Pello Añorga / Jokin Mitxelena

ELKAR

Bost eta bederatzi urte arteko haurrei zuzenduriko ipuina da. Mutilek "nexka" deitzen dioten haur baten istorioa kontatzen du. Izan ere, "nexka" deitzen diotelako, baztertua eta triste sentitzen da Kevin, oso triste, astoa baino tristeago, zeren bera ez da neska. Horregatik joan da errekarara, ispilutxori galdetzera, zer ari ote zaion gertatzen.

PROPOSAMENA

‘Guztiok izan beharko genuke feminista’

“Zenbat tona sufrimendu eragin behar da emakume bat eraikitzeko?”

Chimamanda Ngozi Adichie idazle nigeriarraren ‘Guztiok izan beharko genuke feminista’ saiakera labur eta zuzena euskaraturik eta Lorea Agirreren hitzaurrearekin argitaratu du Hik Hasik, ikastetxe guztiek generoaren gaia lantzeko euskarri sendo bat izan dezaten.

Suediako 16 urteko ikasle guztiek jasotzen dute Chimamanda Ngozi Adichieren *Guztiok izan beharko genuke feminista* liburuaren ale bat etxean. Guztiek. Ikus dezaten, ohar daitezen zer dakarren generoak, zer dakarren gizartea bi kaxoititan—gizonezkoak goikoan eta emakumezkoak behekoan, uler bedi— banatzeak. Gazteak beste era batera, parekidetasunean hezteko asmoz banatzen dute liburua. Eta orain, Hik Hasik Euskal Herriko ikastetxe guztietara zabaldu nahi du saiakera, irakasle guztiek eta ikasle denek diskriminazioaren bizipena eta feminismoaren balioa azaltzen dituen saiakera arrakastatsua euskaraz goza dezaten. Eskolan irakur dezazuen elkarrekin, ikasleekin landu eta iruzkindu dezazuen, edo fotokopiatu edo deskargatu edo ale gehiago eskatu eta etxean banaka irakurtzera gonbidatu ditzazuen



ikasleak, eta hausnartu eta partekatu ondoren, solastu, mintzatu eta eraldatzeko.

Beretik, pertsonaletik eta lokaletik abiatutik, Okoloma lagunarekin izandako elkarrizketatik hasita, txikitako pasarteetatik, emakume eta idazle gisa bizi izandako esperientzietatik, binarismoa, patriarkatua, genero sistema eta hori guztia gainditzeko feminismoa zer den azaltzen du, xehe

eta xume saiakera labur honek. Horra Chimamanda Ngozi Adichieren meritua. Mundu osoan sona izan duena. Izatez entzuteko idatzia izan zen, *TED talk* solasaldi bat —bi milioi erreproduzio baino gehiago izan dituena eta Hik Hasik euskaraz eskainiko duena— jasotzen du liburua, eta zuzena eta sarkorra da oso. Nork bere burua ikus dezake Ngoziren hitzetan, nork bere larrua emakume

adeitsu eta desiragarriak deskribatzen dituenean, gizon oldarkor indartsu arrakastatsu izatera behartuak agertzen dituenean.

Feminista hitza — eta beraz ekin-tza — aldarrikatzen du idazle nigeriarrek. Feminismoa hezkuntzarako tresna ezinbesteko.

Eta euskarazko bertsioa Lorea Agirre kazetari eta antropologoaren hitzaurreak osatzen du. “Zenbat tona sufrimendu eragin behar da emakume bat eraikitzeke? Eta gizonezko bat eraikitzeke?” Hor Agirrek egindako hausnarketa. “Neska izatea beti izan da gutxiago izatea. Orain ere bai”.


Adichieren liburua irakurtzera gonbidatuz, generoaren gaiak duen zentraltasuna ikustera darama hitzaurreak irakurlea: “Geure identitatea goitik behera zeharkatzen, zedarritzen eta determinatzen duelako. Generoak ezin du izan oin-ohar bat orriaren ezker bazterrean. Ez da gauza partikular bat. Ez da kontu pertsonal bat. Gai zentrala da. Herri-tar guztion auzia”.

Nigerian eta Euskal Herrian, bat eta bera da genero-sailkapenak egiten duen diskriminazioa. Bat da Ngozi Adichieren mezua eta Agirrerena: “ez dezagun neskei, neska jaiotzeagatik, guneak eta atea ukatzen jarraitu, ez ditzagun beldurtu; ez ditzagun mutilak erasotzaile eta tratu txar-reen emaile bihurtarazi, ez ditzagun beldurtu, eta irakats diezaiegun denei zapalduaren eta baztertuaren aldeko ardura hartzen”. Feminismoa da horretarako tresna: “Jakin-min bat da feminismoa —dio Agirrek—. Jakintza bat. Jabetze bat. Ahalduntze bat. Boteretze bat. Izan neska izan mutil izan emakume izan gizon izan zernahi izendatu gaituztela”. Baina badaki Agirrek hitzak berak beldurra sortzen duela oraindik, Angela Davisen hitzak dakartza: “Feminismoa emakumea gizakia dela defendatzen duen ideia erradikala da”.

Saiakerak, deskribatzen dituen bizi-pen eta egoerengatik — hain pertsonal eta hain unibertsal —, darabilkien hizkeragatik, zehaztasunagatik, ironiagatik eta fintasunagatik nerabe eta gazteak ditu irakurle-jomuga. Goza dezatela, eralda dezazuela hezkuntza.

Euskarazko bertsioaren argitalpena:

Hitzaurrea: Lorea Agirre
Itzultzailea: Euskaratu AEK
Sustatzailea: Plazara Goaz
Argitaratzailea: Hik Hasi



Liburuko hainbat pasarte:

Snukkan, Nigeriako hego-ekialdeko unibertsitate-hirian, Lehen Hezkuntzako ikaslea nintzenez, hiru hilekoaren hasieran azterketa jarriko zigula esan zigun irakasleak, eta nota onena ateratzen zuena ikasgelako begiralea izango zela. Ardura hori izatea ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula. Ikasgelako begiralea izanik, zalaparta sortzen zutenen izen-abizenak jaso behar zenituen egunero —botere-mozkorraldia eragiten du horrek baina gure irakasleak, gainera, makila ematen zizun, eskuan eraman zenezan zalapartarien bila ikasgela goitik behera zeharkatzen zenuen bitartean. Jakina, makila erabiltzea ez zegoen baimenduta. Bederatzi urteko ni bezalako neskato batentzat, baina, egoera zirrargarria zen hura. Ikasgelako begiralea izateko irrikan nengoen, eta, beraz, notarik onena atera nuen azterketan. Orduan, nire harridurarako, irakasleak esan zuen begiraleak mutila izan behar zuela—.

Lagun estatubatuar batek oso ondo ordaindutako lan bat dauka, publizitatearen alorrean. Lantaldean dauden bi emakumeetako bat da. Lagun horrek kontatu zidan nagusiak gutxietsita sentitu zela bilera batean: nagusiak ez zituen aintzat hartu haren iruzkinak, eta, gero, oso antzeko batzuk laudatu zituen, gizonezko batek egindakoak. Emakumeak gogoia sentitu zuen kexatzeko eta nagusia auzitan jartzeko, baina ez zuen halakorik egin. Aitzitik, bilera amaitutakoan, komunera joan eta negarrari eman zitzaion; gero, barrenak husteko hots egin zidan. Ez zuen kexatu nahi izan, oldarkor itxura ez ematearren. Erresuminari barrenak jan ziezazkion izatera mugatu zen.

Atentzioa eman zidan lagun hark eta beste lagun estatubatuar askok zenbateko ahalegina egiten duten jendearen “gogoko” izateko. Ematen du gainerakoek gustukoa izatea oso garrantzitsua delako ustean hezita daudela, eta “gogokoa” izate horrek oso gauza zehatza dakar: alde batera uzten du amorrua adieraztea, oldarkorra izatea edota desadostasuna ozenegegi agertzea. Denbora gehiegi pasatzen dugu neskatoei mutikoei eurei buruz pentsatuko dutenaz kezkatu behar dutela irakasten. Mutikoei, ordea, ez diegu irakasten gogokoa izatearen gaineko kezka izaten.

Ez da erraza generoari buruzko elkarrizketak izatea. Jendea deseroso sentiarazten dute eta, batzuetan, jendea sumindu ere egiten da. Gizonek nahiz emakumeek egiten diote uko generoaz hitz egiteari, edota joera izaten dute, genero-arazoei garrantzia berehala kentzeko. Beti izaten delako deserosoa gauzen egoera aldatzeari buruz pentsatzea.

Hainbatek galdetzen dute: “Zergatik erabili feminista hitza? Zergatik ez esan giza eskubideetan sinesten duzula, edo halako zerbaitez?”. Bada, ez litzatekeelako zintzoa izango. Argi dago feminismoa giza eskubide orokorren parte dela, baina “giza eskubideak” adierazpide generikoa erabiltzeak generoaren berariazko arazo berezia ukatzea dakar. Mendeetan emakumeak baztertuak izan ez direlako itxurak egitea da. Genero-arazoak emakumeak jomugan jartzen dituela ukatzea da. Tradizionalki, arazoa ez zela gizakia izatea, baizik eta sexu femeninoko gizakia izatea. Mendeetan, munduak bi multzo handitan bereizten zituen gizakia, eta, gero, multzo horietako bat baztertu eta zapaltzeari ekiten zion. Bidezkoa da arazoaren irtenbidean horixe onartzea.

Zenbait gizon feminismoaren ideiak mehatxatuta sentitzen dira. Uste dut horren jatorria jasotako heziketak sorrarazten dien ziurgabetasunean dagoela, izan ere, euren autoestimua murriztu egiten da gizon gisa dagokien kontrola “naturaltasunez” ez daukatenean.

ATZEKO ATETIK



EDUKIA ETA EDUKIONTZIA IZASKUN LANDAIDA EMAKUNDEKO ZUZENDARIA

Eskola publikoan ikasi dugu neba-arrebok. Gure gurasoek hori ere “herria egitea” zela transmititu ziguten, eta beraz gure Ugaoko eskolara joan gara beti, eta hala egin dute baita ere gure seme-alabek. Eskolako andereño eta maisuen oroitzapen oso ona daukat eta badakit neurri batean, euren eraginagatik naizela naizen modukoa. Askotan ez gara konturatzen gure haurtzaroko zenbat ordu egin ditugun eskolan, eta ondorioz, zelako eragina izan duten gugan irakasleek. Eta ondorioz, zelako eragina duten baita gure gizartean ere.

Duela gutxi, ganbaran nenbilela, hamar urte nituela egindako eskulana aurkitu nuen, eta ikusi bezain pronto, burura Mari Carmen andereñoaren irudia etorri zitzaidan, garai hartan nuen andereñoarena. Gogoratzen dut garai hartan ez zegoela herrian gaur ulertzen dugun bezalako eskola bat. Gelak herritik zehar sakabanatuta zeunden. Urte batean eliza ondoko lokalean egon ginen, beste batean Udaletxeko azpiko lokaletan, orain osoko bilkura gela den tokian, edo egun Udaltzaingoa dagoen bulegoetan. Ez geneukan ez ingeles klaseetarako gelarik, ez irakurketa gelarik, ez eskolako jolastoki propiorik... Gure patioa herriko plaza zen. Horrela ibili ginen urtetan, eraikuntza bateratua egin zuten arte.

Eta, bai, garai hartako instalazioak, edo “edukiontziak” ziurrenik ez ziren egokienak izango, baina perspektibaz ikusita esan dezaket ez naizela horretaz akordatzen, baina bai “eduki” nahiko egokia jaso izanaz. Eta uste dut bidezkoa dela hau onartzea, eta baliabide gutxirekin batzuek zelako lanak egin zituzten onartu eta gorai-patzea.

Hogeita hamazortzi urte bete dira ordutik, eta txikitik ikusten ez genuena ikusi ahal dut gaur. Irakurketa berri bat egin dezaket, begi berriekin ikusten baitut ordukoa, ganbaran aurkitutako panpina batek piztutako oroitzapenei esker.

Andereño Mari Carmenekin egin genuen trapuzko panpina ikustean, konturatzen naiz ziurrenik garai hartan hezkidetz hitza bera ez zela ez existitzen baina gure andereñoa saiatu zela praktikan jartzen. Izan ere, gogoratzen dut, gelako guztiok, mutilek zein neskek, ikasi genuela josten, botoiak jartzen, zuloak errepasatzen... Ikasi genuen orratza erabiltzen, denok, denontzako baliagarri izango zela ikasi genuen, lan hura gizon eta emakumeentzat zela, alegia. Bizitzarako ikasketa praktikoa izango zen hura. Bai mutil zein neskentzat.

Margotzeari ere bere garrantzia ematen zion andereñoak eta emakume margolariak egindako artelanak erakusten zizkigun bitartean, margo-

tzera gonbidatzen gintuen eta pintzelak erabiltzera animatu, gure irudipenarekin nahi genuen lekura heldu ahal ginela barneratzeko. Eta honez gain, irakurtzeari ematen zion garrantzia, eta argi zuen matematikak guztiok ondo menperatzeko gai izan behar ginela. Oraindik gogoan dut nola geratzen zen eguerdian, bazkaltzeko tartean, gurekin gai bat edo bestean sakontzeko, ikasten laguntzeko.

Gauza asko eta mezu asko transmititu daitezke gure ekintza eta jarrerekin. Garai hartako andereñoak egin bezala, beharrezkoa da gure eguneroko jardanean transmititzen ditugun balioetan erreparatzea, izan ere, denok egin dezakegu zerbait gure inguru hurbilenean gizarte hau hobetzeko, eta zailtzarik gabe, gizarte hau hobetzeko bide ezinbesteko bat berdintasunean aurrera egitea da. Irakasleek, hezkuntza munduak, horretan erantzukizun handia dute. Horregatik behar dute denon laguntza eta baita aitormena ere.

Nik zorte handia izan nuen, edukiz ondo hornitu ninduten txikitik, behintzat horren sentsazioa dut. Hala ere, pena handia daukat orain beranduegi delako andereño Mari Carmeni hau guztia esateko eta egin zuen lanagatik eskerrak emateko. Artikulu hau idaztea izan da bere lana eta beste hainbat irakasleren lana gorai-patzeko modu bat.



**“Trokonizko Gersa eskola” jardunaldia
Rudolf Steiner-WALDORF pedagogian oinarritua**

MARTROA Aste 25ean, laruntzia, 9:00etatik 13:00etara

Gerta. Aurrizpen sistema:

- Euzko Herriko “Waldorf” pedagogia erakundeak.
- UETOK, irakaskuntza Herrikoetako Proiektua. Erakundearen zuzendakariak: Elkar Herrikoetako, Lehen Herrikoetako, Bigarren Herrikoetako. Tarnoko.

Arrazaleak. Taldekoak biziaren praktikoak:

- Elkar Herrikoetako, Lehen Herrikoetako eta Bigarren Herrikoetako taldeak. Elkar Herrikoetako herriko elkar-erakundeak, Lehen Herrikoetako eta Bigarren Herrikoetako taldeak eta herriko elkar-erakundeak.

Trokonizko (Arabek) Gersa eskolaren egungo da jardunaldia.

Talderako eta herriko elkar-erakundeak, Herriko elkar-erakundeak.

www.hikhasi.eus



0-3 urte bitarteko hezitzaileentzako prestakuntza (5. promozioa)

Asteazken Hizkuntzako prebentzioaren prestakuntzaren sailarekin batera, 250 orduko 5. promozioa bitarteko hezitzaileentzako prestakuntza eskaintzen du sistemaren ikasleentzat. Hala ere, ikasleek bere burua prestatu behar du.

- Emmi PIOLER** (Koordinatzailea: Juanjo-QUINTELA)
- Loris MALAGUZZI** (Koordinatzailea: Alfredo Hoyueko)
- Formakuntza pertsonala** (Koordinatzailea: Alvaro BENARAN)

Ikasleek bere burua prestatu behar du, gaitasunak dituzten ikasleentzat. Hala ere, ikasleek bere burua prestatu behar du.

Informazioa esan eta izena emateko aukera, martxoaren 13tik aurrera

www.hikhasi.eus helbidean